



Tan... tan...
badator... badatorrela...
TANTANEZ TANTAN!!!



Burbuila **batean ez bizitzeko**

J. Etxeberria, 13



- Hilabete bateko
doaneko proba



943 700 230

- Antonio Murillo doktorea
PERIODONTZIA, INPLANTOLOGIA, AHO-KIRURGIA
- Ainhoa Zulueta doktorea
ODONTOLOGIA OROKORRA, PROTESIAK, ESTETIKA
- Susana Sierra doktorea
ORTODONTZIA, OKLUSIOA



**Edozein tratamendu
dela ere, eskaintzen
dizkizugun abantailekin**

**BELDURRA
DENTISTARI?**

ZER DA HORI?




Sedaziazarekin

gustoa

ematen du!

ORDUTEGIA:
Astelehenetik
ostegunera:
10-14 / 16-20h Osti-
raletan:
10-14 / 15-19h



Julian Etxeberria, 12 - 1. Esk - Tfnoa. 943 20 85 52



IRAZABAL
clínica dental

www.clinicairazabal.com - info@clinicairazabal.com

**ARGITARATZAILEA:**

...eta kitto! Euskara Elkartea

HELBIDEA:Urkizu, 11 - solairuartea
20600 Eibar**TELEFONOAK:**

943 20 67 76 / 943 20 09 18

FAXA:

943 20 28 72

Astekariaren E-MAILak:erredakzioa@etakitto.com
komunikabideak@etakitto.com
publizitatea@etakitto.com**Elkartearen E-MAILak:**elkartea@etakitto.com
normalizazioa@etakitto.com**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:**

Itziar Albizu

Maidar Aranberri

Ekhi Belar

Jose Luis Gorostegi

Silbia Hernandez

Koldo Mitxelena

ADMINISTRAZIOA:

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA:

Koldo Mitxelena

ERREDAKZIO-BURUA:

Silbia Hernandez

DISEÑUA ETA MAKETAZIOA:

Jose Luis Gorostegi

ARGAZKI ARLOA:

Leire Iturbe, E. Belar

eta S. Hernandez

HIZKUNTZA ARDURA:

Juan Andres Argoitia

Maidar Aranberri

PUBLIZITATEA:

Itziar Albizu

Belen Ulazia

Tfnoa: 943 20 67 76**AZALEKO ARGAZKIA:**

Leire Iturbe

BANAKETA-ARDURADUNA:

Ainhoa Luz

TIRADA:

8.050 ale

INPRIMATEGLIA:

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A:

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA:

SS/430/92

ISSN: 1132 - 1679

(*...eta kitto!*/k ez du bere gain hartzen al-
dizkarian adierazitako esanen
eta iritzien erantzunkizunik)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskerara

IPURDILOKA/IPURLOKA.- Aldakorra, batetik bestera geldiezinik dabilena. Gaztelera *'culo de mal asiento'*. "Ipurloka bat zan iñun irauñ ezindakua".
IPURMAMIN.- Gaztelera *'nalga'*. "Gorbeixan itxurako ipurmamiñak zittuan".
IPURZULO.- Ipurdiko zulo. "Emon zetsan ostikuakin ipurzulan, eta aidian juan zan".

ESKUTITZAK

ITURBURU INGURUKO ZABORRAK

Iturburu ikastolako jolastokia eta inguru guztia plastikoz eta zaborrez zeudela ikusita, birritan zuzendaria-ri eta beste behin zuzendaritzako kideei patioa eta kanpoaldea lotsagarri, zaborrez beteta zeudela esan nien eta udaletxekoei ere kexa aurkeztu nien, garbitzera zetozenean desbrozadorarekin plastikoak txikitu eta ez jasotzean, gero plastikoak jasotzea zailagoa izatea eragiten zutelako. Nire salaketa honakoa da: ikastolako jolastokiko zaborrontziak beteta egoten direla eta ez dituztela jasotzen eta, horren eraginez, haizea egiten duenean inguru guztiak zikintzen direla.

Bestalde, badakigu jendeak aparkalekuan latak, piz-za-kartoiak edo beste edozer botatzen duela, Mankomunitateko edukiontzi inguru ere ikusteko dago eta horien aurrean Udalak ez du ezer egiten.

Ikastolara ailegatu aurretik eskonbrera moduko bat sortzen dihardu eta honi ganoraz erantzun ezean ezin izango da hori guztia sekula garbitu. Horregatik, Udalari erantzunkizunez jokatzeko eskatzen diot. Umeek hori autobusetik ikusten dihardute eta uste dut edukazio kaxkarra ematen dihardugula.

JON ZARRAUA

KAIXO FELIX

Goi larretan aintxitxika lagunak dituk onduan aiskidia bihar ei dok izan beti akorduan ha ze kuadrilla zintzua!! Ez dakik zer galdu duan

ahal dan artian nahi juek jarraitu oingo moduan maratoia asmau deuek ez dagok ezer jokuan izena ez jakek, baiña eukitzeko ezkutuan

ezaguna ez bahaiz ez aintxitxiketa munduan Felix, ez hadi estutu gordeko haugu goguan.

TRUNBOI

DOIÑUA: HABANERA

asteko

HEMEROTEKA


esaldiak

"Bi krisi ditugu: positiboa herrialde arabiarretan eta negatiboa Europan. Herrialde arabiarretan jaiotza krisia da: haur bat oihuka ari da. Ez dakigu zer esne mota eman behar digun eta ez dakigu nola garatuko den. Baina demokraziarako jaiotzearen krisia da, horrek dituen arriskuekin. Europan, ordea, krisi negatiboa dugu, austeritate neurri politikoek sortu dutelako"

(Sami Nair, politologoa)

"Euskararen batasuna gauza serioa da. Euskaltzaindiak, adibidez, egunero ematen ditu arauak eta jakin-garriak diren liburukak ere argitaratzen dira; baina batzuk planto egiten ari dira. Irakasleez ari naiz, kazetari-
ez... Ez diote garrantzirik ematen ezaguera eguneratzeari, baina funtsezkoa da horretan jarraitzea; gainontzean, kalte egiten ari gara euskara batuari"

(Ibon Sarasola, euskaltzaina)

EIBARKO
UDALAGIPUZKOAKO
FORU
ALDUNDIAEUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCOKULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZA)Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailak eta Kutxak diruz lagundutako aldizkaria

Iñaki Goenaga omendu dabe

ATZO ARRATSALDIAN OMENDU EBEN IÑAKI GOENAGA BERE HERIOTZAREN 10. urteurrenari, Armerixa Eskolaren Mendeurrenaren testuinguruan antolatutako ekitaldixan. Goenagak 70eko hamarkadaren hasieran ekin zetsan entseguetarako laboratorixua sortziari Armerixa Eskolan bertan eta handik urten eban IK4-Tekniker inbestigaziñorako alkartiak. Hori goguan euki eben ekitaldixan parte hartu eben Teknikerreko kidiak zeñi enpresa eta politika arluetako ordezkariak eta Goenagaren ibilbidiari errepasua emoteko bidea eskindu eben. Ekitaldixa agurtzeko arduria, barriz, Iker Goenaga semiak euki eban.



Lekeittioko Agustineri bisittan

MARTITZENA, MAIATZAK 22 SANTA RITA EGUNA DA eta, urteroko ohittuari jarraituta, aurten be hainbat eibartarrek Lekeittoria juateko bidaia antolatu dabe, hango Agustinen Komentuan dagozen mojeri bisittia egitteko. Ohitturia 1937xan jaixo zan, hain zuzen be Gerra ostian Regiones Devastadas dalakuak merkatu plazia Errebalen egitteko mojen komentuarde ordurarte bete eban edifizia saldu eta mojak Lekeittoria alde egiñ ebenetik. Hasieran XIX. mendeko jauregi

batian hartu zittuen, baiña Udalian parkiña eta hotela egittia pentsau eben eta beste edifizio batera trasladau zittuen klausurako mojak, gaur egunian euren etxia dan Etxezabaleran hain zuzen be. Mojak Lekeittoria juañ ziranetik Eibartik urtero juaten jakoz bisittan Santa Rita egunian eta aurten taldiarekin batera juateko interesa dakenak antolatzailliek kontaktuan ipintzeko aukeria dake, telefono honetara deittuta: 943-203005 (Mary Paz) edo 943-202836 (Eduarne).



Beste herrixetan egingo dan moduan, Eibarren be plazara urtengo dabe bixar. / SILBIA HERNANDEZ

Goazen Plazara jai giruan bixar

EIBARKO HERRIRAK BIXARKO "GOAZEN PLAZARA GOAZEN UNTZAGARA" EKITALDIXA ANTOLATU DAU. Programia 11.00etan hasiko da Untzagan, trikitilarixekin. 11.30xetatik aurrera umiendako puzgarrixak, taillarrak (makillajia, eskulanak...), ipuin kontalarixa (Zurumurru taldeko Nerea Ariznabarretak "Mamuak eta beste auzokide batzuk" ipuiña kontauko dau) egongo dira martxan eta, bixen bittartian, edarixa, txistorria eta kamisetak salgai ipiñiko dittue. 13.00ian Eibarko Euskalgintzak antolatu daben Gantxillarekin bat egingo dabe eta 14.00xetan hasiko dan ekitaldi politikuan ondoren, 14.30xetan herri-bazkarixa hasiko da (tiketak Karrika, Deportibo, Buenos Aires eta La Taberna de Luis tabernetan salgai). Bazkal ostian kantuan eta dantzan jarduteko aukeria egongo da.

Ekitaldixaren aurkezpenian "presuen giza eskubidiak errespetatzeko" eskaeriarekin batera, gogora ekarri zittuen Eibarko presuak: "Ibon Muñoak 11 urte daroiaz kartzelan eta Puerto de Santamarian Euskal Herritik 1.000 kilometrorra dago. Mikel Zarrabek 22 urte daroiaz preso eta aspaldi biharko leuke kaliañ, baldintzapeko askatasunian. Eta Aniaiz Ariznabarreta 2010eko iraillaren 14an Guardia Zibillak atxilotu eta torturau ostian, oindiok ez dabe epaitu".

Eibar, bakiaren sinbolo izateko eskaeria


ARALARREK, BILDUK ETA PSE ALDERDIXAK ADOSTUTAKO PROPOSAMENAREN BITTARTEZ, Eibarren eta Elgetan oin dala 75 urte bonbardaketak, fusilamenduak eta bortxaketak jasan zittuen biktimeri errespetua agertu nahi izan detse eta, horrekin batera, herri bixen izenak bakiaren sinbolo modura "Ietra Iarriz Gernikari lotzeko" eskaeria egin dabe Batzar Nagusixak.



LOURDES ARANZABALen

1. URTEURRENA

Haren aldeko meza ospatuko da hilaren 20an (domekan), 12.00etan hasita, Karmengo Amaren parrokan



Toribio Etxebarria Sarixak banatu dittue

AURREKO ASTEKO EGUE- NIAN BANATU ZITTUEN COLI- SEUAN TORIBIO ETXABA- RRIA SARIXAK.

Lehiaketako atal bixetara presentau dittuen 30 kandidaturen artian, epaimahaixak honetxeri sarixa emotia erabagi dau: Enpresa Barrixak atalian, "Instant Sport. Wavegarden" (Donostia) surfa egitteko olatu artifizialak sortzeko proiektuak irabazi dau eta, garaikurra-
rekin batera, bestiak beste, 10.500 euro eskudirutan jaso ditu, eta 60.000 euroraiñoko gastua egitteko aukeria eukiko dabe

Bic Gipuzkoa Berrilan bittartez enpresiarene bidegararrittasun plana eta abiarazte-txostena egitteko. Gaiñera, enpresa asmueri emoten jakon Sari Teknologikua be proiektu berberak irabazi dau (24.000 euroraiñokua); Naziñoartekotasunari Sarixa Barakaldoko "Moway Robot Hezigarrixia" proiektuarendako izan da.

Enpresa Ideiak ataleko sarixa, barriz, Donostiako "Mecatronia" tona haundiko bobinak pillatu



T. Etxebarria Sarixetan galdardonatutako guztien talde-argazkiza.

eta tratatzeko logistikarendako soluziñuaren inguruak jaso dau (10.500 euro eskudirutan eta bideragarrittasun eta abaiarazteko planak egitteko 60.000 euroraiñoko gastua egitteko aukeria). Eta atal horretako Sari Teknologikua Donostiako "Composites Patch" proiektuak jaso dau (24.000 euroraiñokua). Sari banaketa ekitaldixan, antolatzailleekin batera Patxi López lehendakarixak hartu eban parte.

Udalbus barrixa aurkeztu dabe

JOSE IGNACIO ASENSIO EUSKOTRENEKO ZUZENDARIXAK ETA MIGUEL DE LOS TOYOS ALKATIAK Udalbus zerbitzurako Euskotrenek erosi daben unidate barrixa, Akondia ize-



De los Toyos eta Asensio Akondia izeneko autobusa aurkezteko ekitaldixan.. / SILBIA HERNANDEZ

nekua presentau eben aurreko barixakuan. Horren moduko hiru autobusak osatzen daben flotak 378.000 euroko kostau dittu. Udalbus zerbitzua Udalak eskintzen dau, baiña 2010ian 10 urterako barritutako konzesiñuari jarraituta, Euskotren-ek dauka horren arduria. Txartelak 0'65 euro balixo dau.

Autobus barrixak, beste bixen modura, ingurumenaren gaiñeko arauak betetzen dittu eta elbarri-xendako arrapala dauka, bestiak beste. Jarritta juateko 18 toki dagoz eta beste 20 lagun zutik juañ leikez.

a u t u a n

TRAFIKO-MOZKETIA

Untzaga plazako zoladura aldatzeko biharak dirala eta, udaletzeko plazia eta Guridi taberna bittarteko errepidia trafikuari itxitta egongo da domeka gabera arte (22.00ak arte).

DENDARIXEN ZOZKETIA

Eibarko Dendarien Elkarteak 25 urte bete barri dittuala-eta, bezueren artian Debako Kresalan lagun birendako bost egonaldiren zozketia egin dabe eta atzo emon zetsen sarixa irabazlieri: Eduardo Ortiz de Zarate (Homme), Maite Eder Azkuenaga (Alberto bitxidendia), Amaia Beitia (Tiki), Blanca Alvarez (Goiara) eta Aitor Gómez (Ogi Berri) izan dira saridunak. Zorionak!

CARMEN LARRAÑAGA

Gipuzkuako PP alderdixak partiduaren zuzendaritza barrixan garrantzixa hartu dau, alderdixak egin barri daben kongresuan ezagutzero emon zittuen karguetako batzuk eurak beteko dittuelako. Bokal barrixetatik 7 Gipuzkuako PP-ko kidiak izango dira eta euretako bat Eibarko Udaleko ziñegotzixa dan Carmen Larrañaga izango da.

ENRIQUE BOLUMBURU GARATE "KETO"

2012ko maiatzaren 13an hil zen, 50 urterekin

**ZURE irribarre eta samurtasuna
betirako izango dira GURE ARTEAN**

- ZURE FAMILIA -



asteko

30.226

datua

larrialdi atendidu zittuen
iaz Mendaroko ospitalian.

Hortik aparte 4.762
interbenziño, 143.114
kanpoko konsulta,
7.017 ingreso eta 602
erditze hartu zittuen.

Amestu Zure Herria lehiaketako irabazliak

ESKOLAKO AGENDA 21 PROGRAMAREN BARRUAN ETA GURE BALIOAK ekimenarekin bat eginda, Debegesak "Amestu Zure Herria. Zein herri mota eraiki nahi dugu?" lehiaketia ipiñi eban martxan eta 6-12 urte bittartekuen maillan La Salle Isasiko 6.A taldia sarixa emon detse, "Eibar" izeneko muralarengaittik. 12 urtetik gorakuen artian Soraluze BHI ikastetxeko 2.B taldia eruan dau sarixa, "Soraluze hobetzekotan gabiltza" bideuarekin.

Eskualde osoko ikastetxiak taldeka hartu dabe parte lehiaketan, eurendako herri ideala dana iru-



dikatzen daben mural eta bideuekin. Irabazle bixak Euskal Kostaldeko Geoparkeaz gozatzeko ibillaldi bana eskuratu dabe.

Bilduk etxebizitza politikia aldatzia eskatu dau

AURREKO BARIXAKUAN ESKINDUTAKO PRENTSAURREKUAN, EIBARKO BILDUK egun batzuk lehenago jasotako Udalmap-en datuen eta Maixako inkestaren emaitzen gaiñeko baloraziñua egiñ eban eta, bestiak beste, etxebi-

zitzaren inguruko politikia kanbixatzia proposau eben, "Eibarko gazterixiak aldameneko herrixetara juateko premiñarik izan ez deixan". Horrekin batera helduendako zeñ umiendako berdeguniak eta estalitako guniak eskatu zittuen, "herritarron bizi-kalidadiaren mesedetan".

Bilduk alokairuan oiñarritutako etxebizitza politikia martxan jartzeko premiñia ikusten dau eta, euren berbetan "Eibarren erabilli bariko 1.200 etxebizitza dagoz eta Foru Aldundixak IBI-xa arautzen daben foru-arauan egindako aldaketarekin, Udalak etxebizitza honeri kontribuziñua %50a igotzeko aukeria izango leuke, holan etxiak alokairuan eskintzeko aukeriak igota". Horrekin batera, Txontan alokairuan emoteko protekziñoko etxiak egittiaren alde be agertu ziran.



Igor Aldalur eta
Josu Cristóbal
eskainitako
prentsaurrekoan.



Balada de Perdedores-en estrenua


DATORREN EGUENIAN, 20.30-XETAN COLISEUAN ESTRENAUKO DABE "BALADA DE PERDEDORES" Teatro Interior taldiaren antzezlan barrixa (sarrerak 5 eurotan salgai). Gerra Zibilla bizi izan eben eibartarrak protagonista modura dakan antzezlan dala aurreratu dabe eta taldiaren sortzaillia dan Eduardo Falcesek idatzitako testuan oiñarritzen da. Sardo Irisarrik zuzenduko daben antzezlanian, Falcesekin batera Maite Lorenzo eta Juan

Manuel Canok jardungo dabe eszenari-xuan eta argixen eta soiñuaren arduraduna Alberto Toledano izango da. Jantxixak Jose Miguel Garciak diseñau dittu. Antzezlanak II. Errepublikan hasi eta Gerra Zibillaren amaieraraiñoko tartian gure herrixan bizi izandako girua gogora ekarri nahi dau eta Eibar bonbardatu ebela 75 urte bete dirala gogoratzeko antolatu daben programaziñuaren testuinguruan estrenauko dabe.

JOSE ANTONIO PEÑA ESTRELLA


(II. urteurrena 2010-V-17)

"Ez zaitugu sekula inoiz ahaztuko"
ZURE FAMILIA




Tantanez Tantan euskeraz bustitzeko aukeria egongo da bixar. Urkizutik Untzagara giza-kataia egingo da eta gantxilla pasako da eskutik eskura, euskeria herriko toki batetik bestera eruanda. 13.00ian emongo jako hasieria ekitaldixari. Busti zaittez euskeriarekin!

Zelan gogoratzen dozu Tantanez Tantan?



JON BARANGUAN
25 urte
gizarte hezitzaillia

Euskeria bultzatzeko oso ekimen ona dala begittantzen jata. Aurreko ediziñuetan lagun asko batu giñan, tartian gizarte eragille asko. Euskeraz gehixago egitteko momentua da. Gure hizkuntzia dan heñian, bultzatu eta egunerokotasunian erabili bihar dogu.




IMANOL BERGARA
51 urte
irakaslia

Lehelengo ediziñuan jende gitxi juango zan bildurra nekan, baiña lagun asko batu giñan. Nahixago dot egunero jendia euskeraz berbetan entzutia holako ekimenak egittia baiño, hori dalako benetan euskeriak bihar daben atxikimendua. Halanda be, poztেকua da ekimenak dakan erantzuna.


ITSASO IZAGIRRE
27 urte
autonomua

Urduritasun eta ilusiñuarekin. Lehelengo urtia abentura modukua izan zan! Herrixak oso ondo erantzun eban. Bigarrenian be ia zer gertauko ete zan pentsatzen genduan, eta oso partehartzaillia izan zan. Ia ediziño honekin ohi-ttura billakatzia lortzen dogun eta eibartarrak euskaraz busti.



MIREN NARBAIZA
26 urte
kazetarixa

Oso hunkigarrixa izan zan gure hizkuntziaren alde horrenbeste eibartar bat eginda ikustia. Aurten be euskeriak ahal dan jende gehixen bustitzia nahiko neuke. Danok zapixa jantzi eta guazen Eibarko kaliak euskalduntzera!





MH
Máquina
Herritarren
Institutoa

ingeniaritza
imh

Informazio Saioa:
maiatzaren 26an, 11:00etan

etortzeko deitu 943744132ra edo idatzi hemen: www.imh.es

ORRI Ondoren?

BEHIN MAIATZAREN 26AN

Ikusi, eta gero finere edo gai maila ibazten jarraitu...

BATILERGOA amaitzen?

ORRI MAIATZAREN 26AN

aukera berria:
alternantzia

Fabrikazian eta Muntan!

gaiturako

egiteko:

Partekatutako INGENIARTZA:
Tantanez Ingeniaritza alternantzian

Orri-aurri

- Mekantzia
- Muntan
- Elektromekanika

Orri-erdi

- Fabrikazio mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio mekanikoa
- Produktzioaren Programazioa
- Mekatronika industriala

Orri-ostea

- Prozesu eta Produktu Berrikuntzaren Ingeniaritza (Diseinatu)

Atzo arratsaldian presentau eben Klub Deportiboko lokaletan aurtengo Euskal Jaixaren ediziñua. 47.a izango da eta datorren asteko lau egun hartuko dittu, eguenian hasi eta domekara arte. Egitarauak azken urteetakueri jarraituko detsa: hor izango dira artisau eta basarritarren azokia, dantza ikuskizunak, kantu-afarixa eta herri-bazkarixa, kontzertua, hitzaldixa, jolasak, parrandarako tartia... Edade guztietako jendiak gozatzeko morokua izango da eta, basarritarrez jantzitta bada, askoz be dotoriago!!




Euskal Jaixak 47 urte egingo dittu

Datorren eguenian hasiko da Klub deportibokuak antolatutako aurtengo programaziñua. Egun horretan, hilla-ren 24an, hitzaldixa eskinduko dau Juan Manuel Garmendiak, Slowfood Donostiako presidentiak, herrialde bakoetako nekazaritza ekoizpenak sustatziaren inguruan. 1986xan sortutako barraskilluaren mugimendu horrek janari ona, garbixa eta justuaren alde egitten dau eta gure arbasuen gastronomia eta ekologixa ondaria ez galtzeko borrokatzen. Hitzaldixa Arrate Kultur Elkartian egingo da, 19.00etan hasitta.

Hurrengo egunian, barixakuan, Kalian Jolasianen barruan, umientzako eta gurasuendako jolasen ordu biko tartia izango da Untzagan, arratsaldeko 19.00etatik 21.00ak arte. Zubiri-zubiri, zapitxua, gurutzeko txingoa, txingokak eta sokasaltuak izango dira jolasak. Udalaren Euskara sailak bultzatuko dau ekitaldi hori eta Udalaren laguntza be izango dau gabeko kontzertuak. Hor Patxi Saizek

bere azken lana eskinduko desku, "Itxaropena" izeneko disko barrixa. Euskal kantu tradizioaletik eta kantautorien tradiziñotik edaten dau Saizek eta bere gitarra eta ahotsa dira oiñari kantu guztietan. Herrimiña, espetxia, amodia, barne hausnarke-ta... halako letrekin eskinduko deskue kontzertua Patxi eta berarekin seikotia osatuko daben taldekidiak. Untzagan jaso daben karpan emongo dabe eta barra be egingo da.



Patxi Saizek barixaku gabeko kontzertua eskinduko dau.

Zapatu ezin betiagua

Zapatuan goiz-goizetik izango da girua gure herrixan. 10.00etarako Toribio Etxebarria kalia postuz beteta ikusiko dogu: herriko 19 artisten postuekin batera, kanpoko beste zortzi be egingo dira, egur talla, forja artistikua, arropak, zeramikia, grabau artistikuak, lore sikuak, bitxixak, beira larrua, zillarra, gantxillua, aromaterapia, panpiñak... danetarik eskintzen. Eta Eibart alkartiak antolatutakuekin batera, basarritarrak be izango dittugu Eibar erdixan: zortzi basarrixetako produktu freskuenak eskinduko deskue eta, hori gitxi baltiz, 11.00etatik aurrera, gatzatua nola egitten dan ikasi gura dabenendako taillarra egongo da, Sosola basarriko ardi esniarekin eta Debemenen esku-tik. Fin-fin ohiturari eusten, AEK-ren talo postua goiz guztian izango da.

Eguardi aldian azokiaren konplementua bihurtu dan herri-kirolen tartia izango dogu: Idoia Etxebarria eta Beñat Telleria harrija-sotzailliekin jardungo dabe Aratz eta Ugaitz Mugerza anaixak aizkorarekin. Mikel Arrillagak eta Aimar Goenagak bertso-saiua eskinduko dabe bittartian. Eta 13.00etan Eskolen arteko V. herri-kirol lehiaketia izango da jokotuko dana, Mogel Isasi, Aldatze, Itzio eta La Sallerekin. Oso ondo finkatu da torneo hau programaziñuan eta aukera bikaiña eskintzen detse gaztiieri herri-kirolen jarduteko.

Arratsaldekoa be ez da laburra izango eta, 18.30xetan Untzagako karpatik urtenda, Hankamotxak bertso-eskolakuekin eta Eibarko trikitilarixekin, bertso-triki herri parrandia izango da kalerik-kale. Horko doiñuak kantu-afarixan izango dabe jarraipena. Gabeko 22.00etan izango da, karpan hori be, eta tripia ondo beteta, kanturako dohaiñak erakusteko ordua iritsiko da 23.00etatik aurrera. Jainagak, Narbaizak



Herri-parrandak afari aurreko girua alaittuko da herriko kalietan. / LEIRE ITURBE

TICKETAK EROSTEKO AZKEN EGUNAK

Bai zapatu gaueko kantu-afarirako (maiatzaren 26an) eta baita domeka eguerdiko herri-bazkarirako (hilaren 27an)t txartelak salgai daude Klub Deportiboan. Hilaren 20an (etzi, domeka) izango da azken eguna horiek eskuratzeko. Prezioa 20 eurokoa da eta ikasle, ume eta langabetuen kasuan, 14koa.

EZ GALDU AUKERA!

eta Garatek girotuko dabe hortik aurreko erromerixia. Batek daki noiz arte iraungo daben!!!

Naziñoarteko dantza jaialdixa

Domekan ugarittu egingo dira ordura arte-



Bost talde izango dira naziñoarteko "Ezpalak, zinta dantzak" ikuskizunian.



Ugaitz Mugerza (argazkixan Jose Mari Olasagastirekin) izango da protagonistetako bat herri-kiroletan.



27 artisauek eta zortzi basarritar izango dira T. Etxebarriako azokako postuetan.

ko dantza saioak eta, holan, Urkizutik Untzagaraiñoako kalejiriak motorrak berotzen juateko balixoko dau. Behiñ Untzagara helduta, "Ezpalak. Zinta dantzak" naziñoarteko jaialdixa ikusteko aukeria izango da. Aurten Tenerifeko La Victoria de Acen-tejoko floklore taldiak, Tarragonako L'ArboÇ-eko ball de gitanes-ek, Nafarroatik etorriko dan Corteseko udal paloteaoaren taldiak eta Eltziegoko dantzarixak izango dira Eibarko Kezka Dantza taldiaren lagun dantzaldi horretan. Zinta-dantza mundu osora zabalduetako dantza-mota bat da eta bizi-tzaren arbola sinboli-

zaten dau dantzetan adittu batzuentzako. Eurixa egiñ ezker, ekitaldixa karpara pasauko dabe.

Herri-bazkarixak hartuko dau lekukua eta, atsedenaldira hartzeko (siestia egiteko be izan leike) tartiaren ondoren, erromerixia izango da Untzagan, ixa karpatik mogidu bari-rik. Patxi eta Konpaiñiak gidatuko dabe danok dantzan jartzeko 17.00etan hasiko dan tarte hori. Eta, jai-egiraraurekin amaitzeko, larrain-dantzen ordua helduko da: lehelengua Untzaga plazan bertan egingo dabe 19.00etan eta bigarrena Klub Deportibuaren parian handik ordubetera.

Klub Deportiboko antolatzailliak ahalegin berezixa egin dabe aurten be "egitarau zabalen" egiteko eta euskararen inguruko helburuari jarraitzeko. "Jendia kalera basarritar jantzitta urtetzia gustauko litxakigu eta ekitaldixetan parte hartzia".

F
Funeuskadi Eibar
SERVICIOS FUNERARIOS

Bellatokia Funeuskadi Eibar
Ostia, 37

Bulegora:
Eskolamaria, 6

24 orduko zerbitzu iraunkorra
©943 82 15 39 - www.funeuskadi.com

Funeuskadi
SERVICIOS FUNERARIOS

Eibar - Buneitia - Billaio - Borsualde - Leiza - Getxo - Gertso -
Portugalete - Santurtzi - Balañakoa - Sarriena -
Espinosa de los Morones

www.irazabal.net
irazabal
Jose Maria Irazabal, S.L.

Azitaín Industrialdea, 3 - H 943 120108

IGELTSERITZA LANAK ETA GREMIOEN KOORDINAKETA

KALITATEZKO OBRAK
Sukaldeak, komunak edo etxe osoak
Teiltatuak, impermeabilizazioak, pabilioiak, bulegoak, dendak...

%5^{eko} DESKONTUA

SUKALDE eta BAINUGELA erreformetan (IGELTSERITZA lanetan) maiatzaren 31ra arte

TEEN-
AJEA



Saxofoia, txirula irlandarra eta, Untzagan orain dela aste bi eskaintako kontzertuaz geroztik, dultzaina jotzen du Ekhi Zugastik eMePebo5t taldean. Urtebete darama martxan (doan tokira doala martxa eskaintzen) talde eibartarrak, rockmeria plazarik plazara eramanez.

EKHI ZUGASTI, eMePebo5t:

“Ondo pasatzeko sortu genuen musika taldea”

- Zer moduz joan den asteko Untzagako kontzertua?

Oso ondo. Demaseko ilusioa geneukan, SuTaGar-ekin jotzeko aukera izango genuelako. Jende asko batu zen, uste genuena baino gehiago: 21.00-etan zen, SuTaGar 00.00etan hasiko zen, jendea afaltzen egon zitekeen... baina jende asko gerturatu zen, ume asko tar-tean. Kamiseta asko saldu genuen gainera; beraz, perfektu!

- Rockmeria taldeztat deskribatzen duzue taldea zuen webgunean. Zer da hori?

Ez genekien zer ipini. Kontzertuetan, lehenengo zatian, dantza talde batetik gatozenez, jendeak dantza egiteko kantuak jotzen ditugu. Bigarren zatian, guri gustatzen zaizkigun abestien bertsioak gure erara. Orduan, ez da erromeria, baina ez da rock kontzertua ere. Rockmeria berba irten zen, gustatu egin zitzaigun eta hor geratu da.

- Musika egiten duten dantzariak edo dantza egiten duten musikariak zarete?

Dantzan jakiñ eta zeozer jotzen ahalegintzen gara.

- Uda ate joka daukagu. Bira-rik egingo duzue?

Kontzertu nahiko daukagu erreikusita: domekan Deban egongo gara, datorren eguenean Gasteizen. Gero Azpeitian, Zarauzko Eskola Publikoko Jaian, Eibarren ekainaren 22an, Donostian Groseko jaietan...

- ‘Ay eutsi bero’-k (‘Ay si eu te pego’-ren bertsioa) zerikusia izan dezake?

Litekeena da. Bideoak 1.500 ikusle izan zituen lehen 24 orduetan; guretzat ez sinistekoa zen. Katu-Kale tabernan zerbait hartzen geundela egindako letra batekin horrelako oihartzuna lortzea izugarria izan zen. Egin ditugu bertsio gehiago ere, ‘Bizikletia kandau’ (‘The final countdown’-en bertsioa) adibidez. Ingeleseko abestiak euskaratu egiten ditugu. Badugu pare bat abesti gaztelaraz eta beste bat katalanaraz, baina gure hizkuntza euskara da ia %100ean. Errastazunik ez dugunez ingelezar abesteko, hobe euskaraz.

- Pentsatu duzue plazatik diskora pasatzea?

Ez, ez. Ondo pasatzeko egiten dugu hau eta hori igarri egiten du behean dagoenak. Honen irauten duenera arte jarraituko dugu, serioegi hartu barik.

publi resa

- Pin-ak
- Metxeroak
- Kamisetak
- Boligrafoak...

PUBLIZITATE ARLOKO eta
ENPRESETAKO OPARIAK

Armagin 3 - behea

☎ eta faxa: 943 70 14 97 Publi.resa@euskalnet.net

Radio Eibar

CADENA
SER

104,0 FM

Izadi

LORADENDA

- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

Hizkuntzak ikasteko sasoiak (uda, summer, été, sommer)

Eusko Jaurlaritzak atzerrian hizkuntza ikastaroa egiteko beka jarri ditu udarako eskuragai. Ingelesa, frantsesa edo alemaniera hizkuntza hauek ofizialak diren Europar Batasuneko herrialdeetan ikasteko aukera luzatzen zaie unibertsitatean dabilzan edo goi-mailako ikasketan egiten diharduten ikasleei.

“Gaur egun, hezkuntza sistemen oinarritzko helburuen artean bereaz gain bestelako hizkuntzak ikastea aurkitzen da, ikasleen hezkuntza integralean bereziki laguntzen duelako, eta komunikazioa eta zirkulazio aske egoten laguntzen duelako”.

Hori dio apirilaren 30ean kaleraturako Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariak. Bestetik, beka honek aurreko edizioetan izan duen arrakasta azpimarratzen da, *“eta Administrazioak horretarako dituen errekurtso ekonomikoak mugatuak direnez, ahalik eta laguntza gehien emateko, diru-laguntzaren kopurua aldatu da”*, eta pertsona-ko 1.200 eurokoa izango da.

Guztira 429 beka banatuko dira eta 514.800 euroko inbertsioa egingo du Eusko Jaurlaritzak ekimen honetan. Izena emateko, berriz, www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net webgunean dagoen eskaera-orria bete behar da



maiatzaren 30a baino lehen. Kurtsoak ekainaren 1etik irailaren 14a bitartean egin beharko dira. Astero 15 ikastordu egin be-

hako dituzte beka lortzen dute eta euren ikastaroak etenik gabeko 3 asteko iraupena izan beharko du gutxienez.



Aldatzeko DBH2koak Parisen.



Aldatzekoen ikas bidaiak

Kurtsoa amaitzeko gutxi falta dela-eta, azken egunotan hainbat ikas bidaia egiten ibili dira Aldatze ikastetxeko ikasleak: 4.DBH-koek Madrilen 3 egun eman zituzten eta, besteak beste, Carlos Latre-ren showa ikusteko aprobetxatu zuten bidaia; bestalde, 2. batxilergoko ikasleak Parisen izan ziren Aste Santu aurretik, hango toki esanguratsuenak ikusten eta, bueltatu aurretik, azken eguna Disneyland-en igarotzeko aukera izan zuten; eta aurreko hilean 1. batxilergoko ikasleak Jacara joan ziren eta, besteak beste, rafting-a egiten, zaldian ibiltzen eta beste jardueratan parte hartzen eman zituzten han igarotako egunak.

Mogel Isasikoak Lanzaroten

Urteroko moduan, aurten ere Mogel Isasiko 4. DBH-ko ikasleak Lanzaroten izan dira ikas bidaietan apirilean. Bestalde, aurreko zapatuan jokaturako 10. Euskadiko Olinpiada Matematikoan parte hartzen izan ziren Eider Maiztegi Cestafe eta Jone Saez Abanzabalegi 2. mailako ikasleak.



Itzioko ikasleak Frantziara bidaietan

Urteroko martxari jarraituta, aurten ere Frantziara bidaietan joan dira Itzio BHI-ko frantses ikasleak. Apirilaren 25tik 27ra bitartean, frantsesa ikasten diharduten 38 ikasle, hiru irakaslerekin batera Puy du Fou-ko parke tematikoa eta Nantes bisitatzen izan ziren eta, euren berbetan, *“erromatarren, bikingoen, mosketeroen... sasoiak ezagutzeko aukera izan dugu eta, horrekin batera, Nanteseko katedrala, Julio Vernereren etxea, Bretainiako Dukeen gaztelua eta beste batzuk ikusten izan gara, zoragarria benetan!”*.

'Arabako euskara' izeneko liburua kaleratu du Koldo Zuazo hizkuntzalariak. Urteetako lanaren ondorio da lana eta euskararen gainean ikuspegi berriak dakartza bertan eibartarrak. Besteak beste, Arabako euskara bizkaieraren aitzindaria dela aipatzen du.



KOLDO ZUAZO: "Gaur egungo euskalkiak Erdi Aroan sortutakoak dira"

- 'Uztaro' aldizkarian "Euskara Araban" ikerketa kaleratu zenuen, 'Arabarrak Euskararen Herrian' liburua ere idatzi zenuen... Orain 'Arabako euskara' liburua kaleratu duzu. Aldatu egin da Arabako euskararen gainean zeneukan ustea lehen liburutik azkenera pasa den denbora honetan? Horrela bada, zer dela-eta?

1989an idatzi nuen Arabako euskararen gaineko lehenengo artikulua eta gauza asko aldatu dira ordutik hona. Hasteko, Arabako hiru izkribu ezagutzen ziren orduan: Landucci italiararren hiztegia (1562koa), Joan Betolatzaren dotrina (1596koa) eta Joan Bautista Gamizen bertsoak (XVIII. mendekoak). Orain, oster, beste bi ere ezagutzen ditugu: Julian Garzia de Albenizen itzulpena (XVIII. mendekoa) eta Lazarragaren literatura lana (XVI. mendearen erdialdekoa). Arabako euskararen ikuspegi sakonagoa eta zabalagoa daukagu orain, ze, gainera, bost izkribu horiek bakoitza leku batekoak dira.

Bestalde, euskara bera ere

hobeto ezagutzen dugu. Denbora gutxian asko aurreratu da euskalkien gaineko azterketan. Eta, azken batean, horrek guztiak ekarri du Arabako euskarari beste begiratu bat ematea.

- Arabako euskara Bizkaikoaren adar hutsa ala euskalki berezkoa zen eztabaida egon izan da orain arte, baina zuk beste tesi berritzaile bat erakusten duzu liburu honetan: mendebaldeko euskararen (Bizkaiera) ardatza Araban dagoela. Azaldu zenezake hori berba (edo esaldi) gutxitan?

Urte asko eman ditut Araba ondoko berbetak aztertzen: Deba ibarrekoa, Goierrikoa eta Burundakoa (Altsasu ingurukoa), eta, hain zuzen, hortik etorri zait argia. Hiru urte eman ditut Urdiainen (Burundan) eta herri horretako euskararen mendebaleko ezaugarri asko daude. Beti uste

"Goierrik ez du eduki Bizkaiarekin hartu-emonik, baina bai, eta estua, Arabarekin"

izan dugu Bizkaitik joango zirela hara, baina zaila egiten da Bizkaitik Burundara ezer joatea eta, askozaz zailagoa, Ameskua eta Lana ibarretara joatea. Aldiz, euskalkiaren ardatza Araban dagoela uste badugu, zentzuzkoagoa agertzen da Nafarroako hiru eskualde horietan mendebaleko ezaugarriak egotea. Eta Goierri mendebaleko ezaugarriak topatzea ere errazago azaltzen da Arabatik joan direla esaten badugu: Goierrik ez du eduki Bizkaiarekin hartu-emanik, baina bai, eta estua, Arabarekin. Arabako aukera ikusi nuenean, hango izkribu zaharrak Bizkaikoekin eta Deba ibarrekoekin alderatu nituen eta gauza bat agertu zen: XVI. mendeko Arabako euskara Bizkaikoa eta Deba ibarrekoa baino modernoagoa zela zenbait gauzatan eta horrek, jakina, nire ustea sendotzen zuen: Araban gauzak sortu eta gero handik Bizkaira eta Deba ibarrera zabaldu zirela esan nahi zuen. Gainera, antzina, XIV. mendea baino lehen, Gasteiz izan zen mendebal osoko hirigunerik

handiena. Esate baterako, han-txe sortu zen apezpikutegia XI. mendean. Hori ere, beraz, Arabaren alde zetorren.

- Euskalkiak oso zaharrak diren mitoak egon dela diozu Berriari eskainitako elkarrizketan. Noiz sortu ziren?

Euskara antzinako hizkuntza da eta, dudarik gabe, bere historian zehar dialektoak ere sortuko ziren han eta hemen, baina gaur egun guk ezagutzen ditugun euskalki hauek ez dirudi hain aspaldikoak direnik. Koldo Mitxelena ere iritzi horretakoa zen eta arrazoi bat aipatu zuen ikuspegi horren alde: euskarak hartutako latineko berbak modu berean esaten direla euskalki guztietan. Jakina, euskalkiak antzinakoak balira, latineko berbak bakoitza modu batean egokituko zen euskalki bakoitzean. Ziurrenera, gaurko euskalkiak Erdi Aroan sortutakoak dira eta, hain zuzen, mendebalekoak ematen du zaharrena. Bera da denetan bereziena eta horrek esan nahi du bera izan daitekeela gainerako-etatik aldendu zen lehena.

Elkarrizketa osoa: www.etakitto.com

etxe abainketa



gehigarria

Teilatuak Fatxadak Sukaldeak Gremioen koordinazioa etab.



JORGE VEGA S.L.
IGELTSERITZA

F. Calbetón, 4 - 3. solairua



Tel. 943 20 83 26 eta 607 20 12 23 Tel. eta Faxa: 943 20 77 34 jorgevega.eibar@gmail.com

Koloreak aukeratzen ondo pasatu



rain urte batzuk etxean sukaldean ematen genuen denbora gehien; azken aldian, berriz, sukaldeak gero eta txikiagoak dira eta egongelak irabazi du metro kopuru hori. Benetan egongela izan behar baldin bada etxeko espaziorik garrantzitsuen ondo aukeratu beharko ditugu bertarako koloreak. Eta nahiz eta koloreak aukeratzea zaila dela esaten den, kontuan izan diseinatzaile, margolari eta profesio-


nal guztiak izango direla gu aholkatzeko prest.

Kontuan izan beharrekoak, besteak beste, honakoak:

- Espazio handia edo txikia izan, ez aukeratu kolore mordo bat egongelarako. Kontuan izan kolorea sartu daitekeela osagarrietan (lanpara, almohada txiki eta abarretan), baina hori ez da izan behar milaka kolore aukeratzeko aitzakia.
- Hormetan kolore ahulagoak erabiliko

ditugu. Margotuko dugun espazioa zenbat eta handiagoa izan, orduan eta xumeagoa izango da kolorea.

- Oraindik ere zuria nagusi bada ere (edo kolore natural argiak), sartu dezagun kolore ilunen bat (telebistak ez badu altzaririk, adibidez, margotu hormaren zati hori kolore indartsu batekin).
- Altzariak hormetako kolore berarekin margotu edo erosiz gero lasaitasuna eta harmonia emango dute, baina altzari guztiak ez daitezela kolore berekoak izan. Kontrastea beharrezkoa da.
- Kolorea osagarri txikietan (mahai, lanpara, aulki...) oso interesgarria da.
- Hormak ez du zertan kolore bera azalera osoan izan behar. Azpimarratu nahi ditugun lekuetan (irakurtzeko txokoa, adibidez) gehiago margotu dezakegu.
- Kontuz kortinak aukeratzeko orduan. Kaleko argitasuna guztiz aprobetxatzeko ahalik eta kortina argiagoak hobe. Kolorezkoak gustatzen bazaizkigu, eman diezaiegun indarra, altzari eta hormak oso argiak jarrita.



F. Calbetón, 16

ROCA

943 20 80 06

zure etxea dekoratzeko aholkulariak

ROLEGATU ZUA, 58081

mokka

ERRIFORMAK
DEKORAZIOA
PROIEKTURAK
SUKALDERAK
ALTZARIAK

San Agurtia 5.
943 550637



BENICOBA

ETXEKO TRESNAK – SUKALDEKO ALTZARIAK

Juan Gisasola, 12-14 benicoba@terra.es
Tfnoak. 943 20 39 02 943 70 13 95




ulmar
S.L.

construcciones metálicas

Txonta, 30 - 1.a eta behea
Tel. 943 12 13 67
Faxa. 943 12 01 50

ERAKUSKETA:
Urkizu, 26 (EIBAR)
Tel 943 12 74 01

Eraikuntza metalikoak
Aluminiozko eta PVCko Aroztegia




EKAIN: Munduko kolorea

APALATEGI AUZOA, 2

Pintura eta Dekorazioa
GRUPORRALMM, S.L.

Tel. 943 821 325
Faxa. 943 821 326
ekain2000@terra.es
www.pinturasekain.com






PINTURA ZORUAK PAPER PINTATUAK ALFONBRAK IZARAK ETA EDREDOIAK BURDINDEGIA

Argitasuna eta hezetasuna zaindu



zken urteetan Feng Shui teknikak oihartzun handia izan du gizartean. Ekialdeko filosofia honek, besteak beste, gure bizitza ahalik eta osasungarriena izateko jarraibideak ematen dizkigu, gure 'ying' eta 'yang' en arteko oreka perfektua izan dadin.

Etxebizitza argitsua izan behar da, argia naturala bada hobea. Etxe berria baduzu, edo berritzeko asmoa baduzu, logela, egongela, sukalde eta komuna non kokatuko dituzun kontuan izateaz gain, argiztapenari buruzko azterketa ahalik eta sakonena egiteak mereziko du. Egia esan, gaur egun dekoradore eta dendetako saltzaileak zu laguntzeko prest egongo dira beti.

Etxeak duen 'energia' garbia izan behar da baina, gaur eguneko etxetresna elektrikoek ez dute horretan asko laguntzen. Horregatik, kanpoko argitasuna ahalik eta gehien aprobetxatzeaz gain (kortina oso argiak erabilita, adibidez, edota leihoak egunero ondo zabalduz), erabiliko dugun argitasun elektrikoa nahikoa izan behar da. Etxeko txoko ilunenek argitasun gehiago



izan beharko dute. Txoko ilunik ez laga; telebistarendako erosten ditugun altzari handiek argitasun asko jaten dute, adibidez, eta horretan argitasun osagarriak erabiltzea ona da, lanpara txiki bat, adibidez.

Eta kontuz hezetasunarekin. Hezetasun mantxa bat agertzen denean, as-

kotan ez diogu garrantzi larregirik ematen eta, ezkutatzeko aukera izanez gero, erloju edo koadro bat ipintzearekin nahikoa dela pentsatzen dugu. Baina energiarengan duen eragina handia da, hezetasun horrek gehiagora egingo du, beraz, margolariarekin aztertu, konpondu eta kentzea da bidea.

VENTANAS ONA LEIHOAK

Bidebarrieta, 28 - behea Tel. eta Faxa: 943 20 28 28
Mugikorra: 653 113 309 / 669 531 358
E-maila: ventanas.ona@gmail.com



AROTEGI METALIKOA, PVC ETA MISTOA
KONPONKETA ETA MANTENIMENDU ZERBITZUA




Desván Dekorazioa



San Agustín, 2

Tfnoa eta Faxa. 943 203762



attrezzo

PROIEKTUAK ERREFORMAK DEKORAZIOA

Arragueta, 7 Tel. 943 127 196 attrezzodecoracion@gmail.com

EPOCA-GORO

San Juan kalea, 5 943 700 216
www.epocasukaldeak.com



SUKALDEAK - BAINUGELAK - PROIEKTUAK - ERREFORMAK - DISEINUA

CASAMANIA

DEKORAZIOA

erreformak
proiektuak
altzariak

Toribio Etxebarria, 14 Tfnoa. 943 20 42 59
ecasamania@euskaltel.net

*gehigarria etxe apainketa
etxe apainketa gehigarria
gehigarria etxe apainketa
etxe apainketa gehigarria
gehigarria etxe apainketa
etxe apainketa gehigarria
gehigarria etxe apainketa
etxe apainketa gehigarria*

F. PASCUAL

ARROZTEGIA - EBANISTERIA

SUKALDE ALTZARIETAN ESPEZIALIZATUAK



VIRGINIA
PASCUAL


Arane, 6

tel. 943 20 61 64 / 943 17 19 73
20600 EIBAR

Zubiaurre, 36-38 behea

tel. 943 17 68 28
48260 Ermua

www.cocinaspascual.com



ARMAIRU ENPOTRATUAK

- Armairu enpotratuak zur mota guztietan
- Diseinu pertsonalizatua
- Erosotasuna eta espazioa
- Zure dekoraziora egokitutako soluzioak
- Aukera zabala zurezko akaberetan, eta baita kolore berezietan eta lakatuetan.

SUKALDE ALTZARIAK

- Fabrikatzaileak gara. Zure neurrirako sukalde altzariak egiten ditugu.
- Esperientzia handiena.
- Kalitate bermerik gehiena.
- Gure konpromisoa zurekin prezio onenean.
- Fabrikatzaileak izanda, gure prezioak merkatuko lehiakorrenak dira.
- 30 urtetik gora material eta merkatuko zerbitzu profesional onenak eskainiz.



IFAR

muebles de cocina
y baño

FORMA
COCINAS

banatzailea



Ifar kale, 6 - behea

Tel. eta Faxa:

943 206 339



Diproca Ateen erakusketa



**Etxe-erreformatan 30 urtetik
gorako esperientzia.**

Ateak, armairuak, oholtzak, ...

Salmenta puntu ugari

inguruko zonaldean.

bizilekuetan adituak
Diproca ATEAK

Isasi, 17 -behea- (Eibar)

Tfnoa. 943 10 83 00 Faxa. 943 10 83 02



Parketak

Alfonbrak


Osagarriak

Pinturak

Errebal, 21

Tel. / Faxa

943 20 19 22



Baglietto

Teilatuan ere leihoak aukeran

A

rgitasunak duen garrantzia behin baino gehiagotan azpimarratzen da. Kanpotik datozen argia aprobetxatu beharra dago, argi naturala baita gure osasunerako garrantzitsuena. Gainera, isolamendu ona lortzeko ikerketa asko egin dute leihoen munduan lan egiten duten enpresek. Izan ere, hotza, beroa, zarrata, hezetasuna zaindu behar ditugu eta isolamenduak horretan lagunduko du. Hau guztia kontuan izanda, gainera, gaur egun merkatuan dagoen leiho aukera handia da, gure beharren eta aukeren arabera eskura izango duguna.

Buhardila edo atiko batean sabaiaik teilatuen forma duela eta, askotan arazo handiak izan dira leihoak aukeratzeko orduan, adibidez, baina gaur egun gero eta eskaintza zabalagoa dago. Hala ere eskaintza honek berezitasun bat badu. Velux formako leihoak beti izango dira pertsonalak, izan ere, leihoen enpresak kontuan izan beharko du zer nolakoa den gure etxeko teiltua. Leihoa aukeratzeko orduan kontuan izango ditugu: kanpoko eta barruko pertsiana duen; barruko aldea egu-




rezkoa edo metalikoa izango den, eta isolamendurako aukera desberdinak daudela eta egokia aukeratu behar dugula bizi garan ingurunearen arabera.

Tamainari dagokionez, buhardiletako sabaian jartzeko aukeran ere aldaketa nabarmena egin da. Izan ere, aspaldi teilatuetan leiho txikiak baino

ezin ziren ipini, baina hori guztiz aldatu da. Pertsiana kolore desberdinak erabiltzeko aukera izateaz gain, tamaina handiko leihoak jartzeko aukera egoteak, logela bereziak, umeendako oso alaiak edo lan leku aproposa muntatzeko aukera dute gaur egun teiltatu azpiko leku hauek.

VENTANAS



- Leihoak
- Toldoak
- Pertsianak
- Garajeetako atekak

IZARRAITZ




ETXEAN EGINDA



Bidebarrieta, 48 - behea
943 25 60 26
EIBAR

faxa: 943 17 08 23
ventanas-izarraitz@hotmail.com

Bizkaia etorb., 10 -behea
943 17 14 52
ERMUA




**Astelehenetik aurrera
ZABALIK
Bidebarrietan**



san juan, 16
EIBAR

1964

Tf. 656756485



proiektuak ★ espazioak ★ altzariak ★ diseinua ★ vintage


📍 Eibarrean 📱 facebook-ean gaituzue 1964.virginia@gmail.com

ERREFORMAK
DEKORAZIOA
PROIEKTUAK
ALTZARIAK



MAMACAS

Ego-Gain, 4 tel./fax 943 12 13 86 mamacas@euskalnet.net



mikel
elorza

interiorismo


proiektuak * erreformak * altzari eta sukaldeak
zeure neurira

Bidebarrieta 12
Tfnua. 405 773 720

Kolegiatu Zkta 265 BI


Bina eibartar, Izarraitzen eta Aizkorriko mendi lasterketetan

AURREKO DOMEKAN JOKATU ZEN IZARRAITZEKO MENDI-LASTERKETAN, MARATOI-ERDIKO distantziaren bueltan, Josu Lahidalga eta Oscar Gisasola eibartarrek hartu zuten parte, 1.660 metroko desnibela gaindituz. Eta beste bi, oraingoan Ander Barennetxea eta Jose Ramon Sousa, izango dira domekan jokatu den XI. Zegama-Aizkorri mendi maratoian. Azken horiek 42.195 metro egin beharko dituzte helmugaratu bai-



Josu Lahidalga Izarraitzen.

no lehen, aurretik 24 km basabide, 10'5 lur pistetako, 4'5 gailurretako haitzetan, bi autoen pistetatik eta asfaltozko beste kilometro bat egin ondoren. 524 korrikalari izango dira Aizkorri, 5.472 metroko desnibela gainditzen: lau ordutik gorako lana irabazlearentzat.



Ipuruako hiru gimnasta podiuma osatzen Hernanin

GIPUZKOAKO GIMNASIA ERRITMIKAKO ESKOLARTEKO B TXAPELKETAN GERTATU ZEN HORI, alebin mailako banakakoan. Elene Varelak jaso zuen urrezkoa bai sailkapen nagusian eta baita sokarekin egindako ariketan, Nahia Arguizek zilarrezkoa bereganatu zuen bai orokorrean bai esku-libre ariketan, eta Teresa Miguelek sailkapen orokorreko brontzezkoarekin esku-libreko urrezkoa ere irabazi zuen. Infantil mailan, Nerea

Deza sailkapen orokorreko brontzezkoaren jabe egin zen, uztaiarekin onena izan eta gero. Taldekako sailkapenei begira, alebin mailakoa 2. postuan sailkatu zen eta infantil mailakoa 3.ean. Bihar izango du hurrengo erronka Ipurua Klubak, federatu mailako Euskadiko txapelketan: han izango da Noelia Bediak eta Irati Yarzak osatutako taldea.



Hernanin jardundako alebin eta infantil mailako ordezkariak, euren prestatzaileekin.

Panpo gogoan izan zuten Aixolan

AURREKO BARIKUAN FELIX ORMAETXEA "PAMPO"-REN OROIMENEZKO BIGARREN MARATOAIA jokatu zen Aixolako urte-gian. Proba amaitu ondoren, lora-sorta eskaini zieten bere emazteari eta familiari eta baita bertsoa bota (Trunboik eskainitako bertso hori 3. orrialdean aurkitu dezakezue).



rrela amaitzen du denboraldia Eibarko foballean historia egin duen taldeak: Eibar KEK izango du nondik fruituak atera etorkizunean.

Jone de Castro foballaria nabarmendu zen

TALDEA BERE BIZKAR HARTU ZUEN JOKALARI GAZTEAK eta, Urki B-k guztiz kontra hasi zuen partiduari buelta ematea lortu zuen, amaieran 3na berdindu ondoren penaltietan irabazteko. Unben jokatuak neurketan, Intxaurdi hasi eta berehala 0-2 irabazten ipini zen markagailuan eta baita azkar erantzun De Castrok faltaz eskuratutako golari. Hala ere, Eibarko jokalaria bere kemena

talde guztiari kutsatzea lortu zuen eta, Andreak eta Mirenek sartutako golekin, partidua berdindu egin zuten. Penaltietan eibartarrak izan ziren nagusi (4-2) eta De Castrok buruan ebakiarekin amaitu zuen, baina gogotsu.

Urkiren lehen taldeak, bestalde, 5-3 galdu zuen Donostian jokatuak Gipuzkoako txapelketako finalerdietako partiduan, azken bost minutuetan erabaki zen partiduan. Ho-



Zurę irribarręak argitzen digu bidea

Bęti ęgongo zara gurę bihotętan

Zurę lagunak





Lehen ere antolatuta izan ditu tiraldiak Arraten Armeriako Ikasle Ohien Elkarteak.

Armeria Eskolako tiraldi berezia


IKASTETXE HORREK AURTEN OSPATZEN DUEN MENDEURRENAREN EGITARRAUAREN BARRUAN, bihar Armeria Eskolako Sari Nagusia jokatu da Arrateko Tiro Zeilaian. Sari hori ez da nolanhikoa izango eta irabazleak 600 euro eta "Laurona Zabala" eskopeta jasoko du; sariak izango dira ere sailkatutako zortzi

lehenentzat. Izen-ematea 13.30etan zabalduko da eta txapelketa handik ordubetera hasiko. 24 metroko distantziara jaurtiko dute tiratzaileak, 10 helize-10 zero modalitatean, Javier eta Miguel Tudanca zuzendariaren aginduetara. Jardunaldiak Ikasle Ohien Elkarteak iraganen egindako tiradaldiak berpiztera dator.

Eibar Eskubaloiko kadeteak bigarrenak Leonen

EZIN IZAN ZUTEN ESPAINIAKO TXAPELKETAKO AZKEN FASERAKO TXARTELA ES-KURATU, baina lan bikaina egin zuen Eibar Eskubaloiko kadeteen taldeak Leonen jokatutako sektore fasean. Etxeko en aurrean amore eman behar izan zuten eibartarrek azken partiduan, aurretik BM Peredako kantabriarrei (32-21) eta

Academia Octavioko galiziarrei (31-26) irabazi eta gero. Guerra taldeko atezaina txapelketako onenaren saria jaso zuen, aurretik ere Euskadiko txapelketan lortutakoa berretsiz. Multzo guztietako neurteta orokorrean, Fernando Fernándezen mutilek Espainiako 13. postuan geratu dira, talde berriaren lehenengo denboraldian.



Sergio Rodríguez lider hiru-txirlotan

SORALUZETAKO SAN ANDRES BOLATOKIAN JOKATUTAKO 7. JARDUNALDIAREN ondoren, Asola-Berriko ordezkariak sendo jarraitzen du lidergoan, 19 txirlorekin: laura du Oier Ugarteburu taldekidea eta bostera Javier Osoro San Migueleko ordezkaria. Soraluzeko tiraldian 80 bolari izan ziren eta Elgetako Rikardo Albizurik izan zen bakarra sei txirilo botatzen. Elgetan jokatu da biharkoa.

Bihar eta etzirako foball zaletuen final-laurdenak erabakita

AURREKO ASTEBURUAN FINAL-ZORTZIRENAK (KOPAKO LEHENENGO JARDUNALDIA) JOKATU ONDOREN, honako lehiak izango dira Unben Kirolojokoa foball zaletuaren Kopa txapelketako final laurdenetan: bihar, Koskor-C. Murillo eta Txoko-Durango; eta etzi, Dental Ekoden-Azkena Kalton eta EzDok-Tankemans.

bilaldia 2012
TRAPAGARAN
 ekainaren **3**^{an}
 autobusa
IRTEERA 10.00 **BUELTA 19.30**
8 euro
 J.A. Mogel Ikastolako Gurasoen Elkarte...eta kitto! Euskara Elkarte

ARGOITZA NAGUSIA
 Martxoaren 22 - behoa, ostuna
FUNERARIA MUGICA
Tanatorio Crematorio del Bajo y Alto Daba
Tanatorio eta Erreusketak labar
 Egitasmen (ligna poligonar)
 Partikular: eskua eta oinaren enesi zerbizak
 Koroak - Eskala - Urteurrenko eskalak
 Euskal Herri osoan ospitaleen hantzen zerbitzu
 Nazioan Nazioarteko hantzen zerbitzu
Mugica Ehorzketa
TELEFONOA (34 GRU) 943 201 951



Lugoko taldeak, Eibarkoak moduan, askotan hartu du parte horrelako faseetan.

Lugo izango du aurkari Eibar KEk promozio lehenengo kanporaketan

SAILKATUTAKO TALDEEN ARTEAN AURKARI ERRAZIK EZ BADA ERE, Lugo zaileentakoen artean sartu dezakegu eta Eibarrek asmatu egin behar du 2. A mailara igotzeko promozio hasiera honetan. Quique Setienek zuzentzen duen taldea hainbat aldiz ahalegindu da maila igotzen eta, esaterako, orain dela urte bi 3-0 irabazi zien armaginei, hemen Ipuruan

bina berdinduz. Eibarrek Lugo-tik etorritako jokalar bi ditu plantilan: Arroyo eta Tornero. Kanporaketa Lugon hasiko da, domeka arratsaldean, 18.00etatik aurrera, Anxo Carro zelaian jokatuko den partidurekin (ETBK). Itzulerakoa, bestalde, aldatarik ez badago hurrengo domekan jokatuko da, 20.00-etan hasita, eta ETB-1ek eskainiko du zuzenean.



Muguruzaren denboraldi bikaina judoan

KALAMUA KLUBEKO ORDEZKARIAK BIKAIN JARDUN ZUEN BESTE BEHIN eta, Cáceresen jokatutako Espainiako txapelketan, brontzezko domina eskuratu zuen 63 kilotik beherakoen mailan eta, taldeka, zilarrezkoa euskal selekzioarekin. Asteburuan lortutako dominei aurretik ere jiu-jitsu modalitatean eskuratutako Espainiko urrezkoa gehitu behar zaio.

Bihurrik San Isidro torneoaren beste edizio bat bereganatu zuen

ATUTXA IZAN ZUEN LAGUN MARTITZENEAN JOKATUTAKO NEURKETAN, eta 40 segundoko tartearrekin nagusitu zen eibartarrak eta bizkaitarrak osatutako bikotea. Larretxeak eta Odriozolak bigarren postuan amaitu zuten eta minutu bat ingurura sailkatu ziren Mujika eta Zelai. Zortzi enbor moztu behar izan zituzten txapela irabazteko; baina ez zen lan hori izan garaileek irabazi zuten proba bakarra, abiadurakoan eta enbor bat mozteko kolpe gutxien zeinek eman txandan ere nagusitu baitziren. Harrijasotzailak ere izan ziren Arrateko San Isidroetan eta erakustaldia ere egin zuten 153 kiloko ingudearekin.



Bihurri Día das Letras Galegasen barruan egindako herri-kirol ikuskizunean. / LEIRE ITURBE

Irujo atsedena hartzea baztertu eta Astelenan izango da

AURREKO DOMEKAN AURKA ZUEN MARKAGAILUA IRAULI ETA BARRIOLA GAINDITU ONDOREN, aurrelari nafarrak beriro Eibarren jokatzea erabaki du hurrengo kanporaketan Xalaren aurka jokatuko aurretik. Azken honek eskatutako atzerapena Juan Mar-

tínez de Irujok binakako beste partidu bat jokatzeko aprobetxatuko du: oraingoan Merino I.a izango du lagun eta Titin III.ak eta Pascualek osatutako bikoteak egingo diete aurre domekan Astelenan jokatuko den jaialdiaren partidu nagusian. Aurretik Apezetxeak eta Ceciliok Mendizabal III.ari eta Peñagarikanori egingo diete aurre eta, jaialdia amaitzeko, Gorka eta Arrutiren arteko buruz-burukoa ikusi ahal izango dute pilotazaleek.



75. URTEURRENA sarrera: **15€**
EIBARKO BONBARDAKETA

Aukeran
DANTZA TALDEAREN

maiatzak 19

COLISEOA-n

"Gernika"
IKUSKIZUNA

23:00etan


ANTOLATZAILEA



BABESLEA



LAGUNTZAILEA





GANTXILLA tantanez tantan BETEKO DUGU BIHAR



Urtean zehar euskararen alde antolatzen diren ekimenen zerrenda benetan luzea da, baina horien guztien artean eibartarrantzat berezia den, geure-geurea dugun bat badago: Tantanez Tantan edo Gantxillaren jaiia modura ezagutzen duguna, hain zuzen ere. Urte birik behin ospatzen den jaialdia bihar hirugarren edizioa beteko du. Aurrekoetan egindakoari jarraituz, 13.00ean Urkizuko iturrian gantxilla bete eta Untzagaraino eramango dugu parte hartzera animatzen garen eibartarrok, euskaraz bizi nahi dugula berriz ere aldarrikatzeko. Herriko elkarte eta taldeei gonbidapena egin zaie eta horietako askok biharko ekitaldian izango direla baieztatu dute. Baina ekimena nahi duten guztientzat irekia izango da eta antolatzaileek herritar guztiak

animatu nahi dituzte, Untzagaraino joango den giza-katearekin bat egin dezaten.

Eibarko Euskalgintzak "Tantanez tantan, Eibarren Euskaraz Bizi" izenburupean antolatu du biharko ekimena. Antolatzaileek azaldukoaren arabera, "Urkizutik irten nahi duenak 12.45tarako egon beharko du bertan, baina bestela, ibilbidearen edozein tokitan ilaran jartzeko aukera izango du jende-



ak, ez da beste ezer egin behar. Aukera izanez gero, leporako koadrodun zapia eramatea eskertuko genieke".

Aurten gantxilla betetzeko ardura bere sorreraren 50. urtemuga ospatzen diharduen Asola Berri elkarteak izango du eta, Untzagaraino bidean, 100 urteko historia bete berri duen Casino Artista Eibarrés elkarteari ere omenaldi txikia egingo zaie gantxilla Ibarkuruz-

Euskalgintzak hori antolatuta egin zuen bat Kontseiluaren sorreraren 10. urtemuga ospatzeko ekimenarekin. Ekitaldiaren amaieran Manix Mandiola orduan Eibar foball taldeko entrenatzailea zenak herriko euskalgintzaren izenean adierazpena irakurri zuen. Baina Kontseiluaren urtemuga ospatzetik hara-tago, eibartarrek osatutako giza katearekin euskaraz bizitzeko eskubidea aldarrikatu zuten.

Horregatik, handik urte bira Gantxillaren jaiia berriz antolatzearabaki zuten eta, lehenengo edizioan egindakoaren bidetik, bigarren honetan ere gantxilla Urkizuko iturrian bete zuten. Omenaldi gisara, orain urte bi euren sorreraren 50. urtemuga ospatzen ziharduten Juan Antonio Mogel ikastolako ordezkariak egokitu zitzaizkien gantxilla urarekin betetzeko lana. Eta berriz ere, giza-katea osatuta, Untzagaraino eramane zuten euskaraz bizitzeko nahiaren inguruko aldarrikapena, eskuz-esku, tantanez-tantan. Bigarren ekitaldiaren amaieran Euskaldunon Egunkariari eta bertako behargin izandakoei elkartasuna adierazi zieten herritarrek.

EKITALDIAREN PARTEHARTZAILEAK ETA ORDENA

URKIZU-IBARKURUTZE

Asola Berri / Urkizu Herri Ikastetxea / Juan Antonio Mogel Ikastola / Juan Antonio Mogel Ikastolako Gurasoen Elkarte / Gaztetxea / Goruntz abesbatza / Trikitilariak / Andirao baserritarren elkarte / ...eta kitto! Euskara Elkarte / ...eta kitto! Euskara Elkartearen bazkideak / Berbetan / Juan Antonio Mogel ikastolako hankapaloak / La Salle Azitain

IBARKURUTZE-ANBULATEGIA

Casino Artista Eibarrés / Eibarko Denadarien Elkarte / Ezker Abertzalea / Debarrenako Bertso Eskola / Itzio BHI / Ignazio Zuloaga institutua / San Andres herri ikastetxea / Jaixak Herriak Herrixandako / Usartza Txistulari Taldea / Ikasten Esperientzia Eskolako Ikasle Ohien Elkarte / Kaleetan Kantuz / Nagusien komisia

ANBULATEGIA-UNTZAGA

AEK euskaltegia / Urbat I.K.E. / Eibar Rugby Taldea / Eibar Kirol Elkarte / Aspe / Arrate Kultur Elkarte / Arrateko Andra Mari herri ikastetxea / La Salle Isasi / EAJ-PNV / Klub Deportiboa / Udal Euskaltegia / Juan Bautista Gisasola Musika Eskola / Amaña haurreskola / Eibarko Herrira

tzera ailegatzean. Eta ekitaldiari amaiera emateko, mendeurrena ospatzen diharduen Armeria Eskolako Iñaki Alberdik irakurriko du aldarrikapena Untzagan.

Kontseiluaren 10. urtemugan

"Tantanez Tantan, Eibarren euskaraz blai" leloari jarraituta euskararen aldeko lehenengo giza-katea 2008ko maiatzaren 24an osatu zen gurean eta lehenengo edizio hartan ehundaka lagunek hartu zuten parte, Urkizuko iturrian gantxilla urarekin bete eta, eskuz esku, Untzagaraino eramaten. Eibarko

Urteak aurrera doaz. Denontzat. Batzuk ikasle, baten bat lanean, langabezian asko (azkenaldian gehiago), gauza bat dute komunean denek: etengabe hezitzeko aukera daukate. Euren jakinmina asetzeko edota osatzeko, birziklatzeko... heziketa ez da amaitzen.

Heziketa ez da amaitzen

UNI EIBAR-ERMUA ETA ARMERIA ESKOLAK URTEETA-KO ESPERIENTZIA DAUKATE HEZIKETAREN GAINEAN.

Denboraren eta handik irten diren ikasleen bermea daukate zentro biek, eta beste urte batez euren eskaintza berritzen dute sasoi berrietara egokituz.

Gaur bertan, zentro biek elkarrekin aurkeztu dute prestakuntza arautuaren barruan heziketa-zikloen gainean duten eskaintza. 2012/13 kurtsuari begira egindako aurkezpen honean, biek ala biek duten berritasunen berri eman dute.

Uni Eibar-Ermuaren kasuan, adibidez, heziketa-zikloak siste-

ma berrira egokitu dira, LOGSEtik LOEra pasatuz (Heziketa Fisikoaren zikloa da LOGSEren barruan eusten den bakarra. Horietan izena emateko aurrematrikula maiatzaren 28tik ekainaren 8ra egingo da, eta matrikula-epaia uztailaren 5etik 11ra egongo da zabalik.

Armeria Eskolak bere hezikuntza eskaintza handitu du lau hezikuntza-ziklo berriekin: Automatizazioa eta Robotika Industrialia, Elektronika Mantenimendua, Informatika eta Telekomunikazio Sistemak, eta Mekatronika Industrialia. Uni Eibar-Ermuaren kasuan bezala, izena-emateko epea maiatzaren 28tik ekainaren 8ra izango da.

Langabetuentzako formakuntza

Hilaren 24ean, datorren egunean, beste hitzaldi bat eskainiko dute Uni Eibar-Ermua eta Armeria Eskolakoek. Bertan, langabeen daudenentzat eskainiko duten lan-formakuntzarako programa aurkeztuko dute. Modu horretan, langabezian daudenek euren formakuntza osatu, birziklatu eta berritu ahal



izango dute ikastaroen bitartez. Langile eta langabeei zuzentzen zaizkie ikastaro horiek, eta Hobetuz programaren barruan kokatzen da ekimena. Horrela, bai Uni Eibar-Ermuak bai Armeria Eskolak, hainbat ikastaro eskaintzen dituzte, helburua langileen lanbide prestakuntza eraginkorragoa bilakatzea delarik, erabiltzaileengana hurbilduz eta Euskal Autonomia Erkidegoko enpresen eskakizunei estuki lotuz.

Ekintzailearen Egunean bat

Ekintzailearen Eguna maiatzaren 30ean ospatzen da, baina Debegesak hainbat jarduera antolatu ditu egun horretatik kanpo ere. Horrela, Armeria Eskolak eta Uni Eibar-Ermua ikastetxeek Ekintzaileen Eguna ospatuko dute euren zentroetan, gaitasun ekintzailea sustatu eta pertsona ekintzaileak balioan jartzeko asmoz.


Armeria Eskolak hilaren 23an ospatuko du Ekintzailearen Eguna. 08.00etan emango die hasiera eta eskolaren sarreran stand bat ipiniko da. 09.00etatik aurrera Jose Luis Novoa Arme-

ria Eskolako zuzendariak, Belen Guinea Urrats Bat programako arduradunak, Vanesa Hortas Debegesako Enpresa Berrien Sorrerarako teknikariak eta Jordi Lorenzo Ermuko Udaleko teknikariak hitzaldiak eskainiko dituzte. Bestetik, Julian Iantzi telebista aurkezleak 'Ideia bat bazu, jarraiozu munduaren amaierara arte' hitzaldia eskainiko du.

Uni Eibar-Ermuak, bere aldetik, ikasturte amaierako ekimenekin batera ospatuko du Ekintzaileen Eguna, ekainean.

Ekintzak Debegesan

Debegesak egitarau zabala eskainiko du maiatzaren 30ean. 18.00etatik aurrera Enpresen Azoka bat egingo dute eta, jarraian, Isabel Santiago ekintzaile eta coachak 'Pentsamendu berriak, jarduera berriak, errealitate berria' izeneko hitzaldia eskainiko du. Halaber, Debarbarreneko ekintzaile talde batek sortu berri duen proiektua aurkeztuko da, Ekingune. Eta egunarekin amaitzeko, Debarbarrena Ekinean! eta Bai Industriari! errekonozimenduak banatuko dira.





MUGICA
ITURGINTZA

AIRE EGOKITUA, ITURGINTZA,
GASAREN INSTALAZIOA, KALEFAKZIOA,
PETROLIO-PRODUKTUAK, BAINUEN
ERREFORMAK ETA ABAR...

HANSGRÖHE KANILEN BANATZAILEA
ZORU ERRADIATZAILEA
EGUZKI-ENERGIA



Egigurentarren, 18
Tel. 943 20 10 30 - Faxa. 943 20 72 24

Ibarkurutze, 5

**ALTZARI
ERAKUSKETA
eta
SALMENTA**

943 20 37 15





Dantzaren bidez mina, tristura, atsekabea, ezintasuna... ekarriko du Aukeran dantza konpainiak Coliseora. 'Gernika' ikuskizuna eskainiko dute bihar 23.00etan eta bizkaiko herrian 1937an jasandako bonbardaketa da islatuko dena. Eibarrekin lotura estua duen Edu Muruamendiaraz da saioaren zuzendari eta koreografoa.

- Nola liteke dantza den gauza eder baten bitartez, bonbardaketa bezalako gauza krudel bat irudikatzea?

Dantzaren bidez sentimenduak asmatzen ditugu. Gure asmoa Gernikan, Eibarren eta Durangon gertatutako bonbardaketak dantzen bidez kontatzea zen, eta gure erara egin dugu hori, dantzaren bidez. Gai gogorra da, sentimendu asko dagoelako horren gainean. Zaila da esplikatzeko dantzaren bitartez nola kontatu daitekeen hain gauza krudela, baina nik uste dut lortu dugula. Normalean ez ditugu horrelako gai gogorak jorrazten gure ikuskizunetan, zaila delako, baina hau egiteko beharra sentitzen genuen.

- Zer aurkituko du Coliseora zuen ikuskizuna ikustera doanak?

Gernikako bonbardaketan gertatu zena kontatuko dugu. Lehenik, bonbardaketa baino lehenengo herria nolakoa zen azalduko dugu. Euskal Herriko herri gehienek modukoa zen, girotsua, alai; gainera, astelehena zen, azoka eguna, eta pentsa nolako giroa egongo zen. Bikoteen eta jendearen arteko harremanak kontatzen ditugu, adibidez. Gero, bonbardaketaren momentura iristen gara, alemanak datozen momentura,



EDU MURUAMENDIARAZ

"Argentinan negarrez amaitu genuen saioa"

bonbak, eta abar. Ostean, herria nola berpizten den ikusiko dugu, herria bizi dela erakutsiz. Nola moldatuko garen istorioa kontatzeko? Hilerrri batean kokatzen gara lehenik eta bonbardaketan hil zirenek han gertatutakoa kontatuko dute.

- Lehen aldia izango da Eibarren 'Gernika' eskainiko duzuen, baina entsegua bai egin dituzue hemen.

Euskadiko Gazte Orkestrak (EGO) hezkuntza esparruan gabonetan egiten duen egonaldia aprobetxatuz, iaz eurekin entsaizten egon ginen. Gabonetako programa zuzeneko musikarekin egiteko asmoa genuen, eta horregatik. Ondoren, pentsatu genuen 'Gernika' amaituta zegoela, baina Argentina eta Uruguain bira egiteko proposamena jaso genuen. Oso ondo egon zen. Aurten, bonbardaketen 75. urteurrena dela-eta, 3 saio egingo ditugu. Ikuskizun polita da, sentimenduak azalera ateratzen dituena. Modu minimalistan dago egina, ia ez du atrezorik, zuria eta beltza dira kolore nagusiak eta Picassoren Gernika koadroarekin jolasten dugu.

- Argentina eta Uruguain egon zinetela aipatu duzu. Nolakoa izan zen esperientzia?

Egia esan, 'flipatu' egin genuen. Demaseko arrakasta

izan zuen ikuskizunak. Lehenengo saioa Necochean egin genuen. Han Argentinako Dantzarien Eguna ospatzen zen eta jende ugari batu zen. Negarrez amaitu genuen. Rosarion ere arrakasta izan genuen. Hango giroa ez zen hain euskalduna, baina harrera oso ona izan zuen ikuskizunak. Montevideon ere egon ginen eta antzokia bete egin zen. Benetan, ez genuen espero.

- Eibarkoa izango da 'Gernika'-ren azken saioa?

Ez, urrian Basaurin ere egongo gara eta gehiago irtetzen badira, aurrera. 'Gernika'-k ez dauka amaiera datarik, historian gertatutakoa delako, gure oroitzapenean dagoelako, zerbait tristea izanik beti ikusi ahal izango delako.

- 'Gernika' izenburua darama saioak, baina Eibar edo Durango izan liteke?

Bai. Gernikan gertatutakoa da munduan propaganda gehien jaso duena, baina Eibar edo Durango titulua izan zezakeen. Eibarren familia daukat eta bonbardaketaren kontuaren inguruan eurekin berba egin dut. Ez nuen pentsatzen hainbestearinokoa izan zenik Eibarren gertatutakoa. Demasa izan zen. Zentzu horretan, pertsonalki gogo handia ematen dit Eibarren aritzeak. Istorioa kontatzea nahi dut, 'Gernika' Eibarren plazaratu, baina jendearen harrera nolakoa den ere ikusi nahi dut. 11 urte dira Eibarren aritzen ez naizena. Azken aldian hezkuntza esparruan egon nintzen eta lehen aldia da Coliseoan arituko naizena. Berezia izango da.

Astebete darama martxan Eskolarteko Antzerki Jardunaldiak eta hurrengo ikuskizun profesionala astelehenean egingo da 15.00etan Hezkuntza Esparruan. Madrilgo Manten Niditosen eskutik 'Lucía la maga' egongo da ikusgai eta aktoreen artean eibartar bat egongo da: Nerea Gomez.



NEREA GOMEZ, aktorea:

"Umeena oso publiko zorrotza da"

- Nondik nora doa aurkeztuko duzun 'Lucía la maga' antzezlan?

Umeendako saio musikala da. Tirano batek bere hiria gobernatzen du eta dena artifiziala da, ezin da amestu... Iratxo batzuek Lucía magoari deitzen diote berriz amesteko, gauzak erreal bihurtzeko, sua berriz existitzeko, ilargia bueltatzeko, eta abar. Mezu positiboa da igorri nahi dena, bai maila ekologikoan, baita ilusioari dago-kionez. "Ilusioa badago, konponbidea dago" esaldia asko errepikatzen da. Galtzen ari diren baloreak berreskuratzea da nahia. Asko gustatzen zait antzezlan, baita ikusle moduan ere.

- Zein da zure papera?

Paper bi ditut: irratxoetariko bat naiz eta baita ilargia ere. Azken hau, sua eta haizea bezala, tiranoak gobernatutako hiri horren kartzelan dago. Gero Lucía magoa dator eta aske geratzen dira.

- Nola sentitzen zara publiko gaztearen aurrian?

Oso gogorra da, publiko zorrotza delako. Gustatzen zaie edo ez zaie gustatzen, erdizka ibili barik. Hasieratik ilusio aurpegiarekin engantxatuta ikusten dituzu edo, aspertzen badira, jolasten hasten dira. Gusto-

koa da gaiztoa irtetzean "eee-éz!" oihukatzen dutela entzutea: ikuskizunean parte hartzen dute. Saioa amaitzean eurekin egoten gara eta oso emozionatuta etortzen dira gurekin argazkiak ateratzera... Oso polita da.

- Madrilgo konpainia batena da ikuskizuna, baina zu eibartarra zara.

Narruzko Zezenen egon naiz bizitza osoan!

- Zerk eraman zintuen Madrilerara?

Urte asko neramatzan Narruzko Zezenen. Euskal Herriari lanerako aukera gutxiago dago antzerki munduan eta antzerkigintza ikastera etorri nintzen Madrilerara. Hainbat konpainiekin lan egin ondoren, gure konpainia sortzea erabaki genuen, irtenbide moduan. Orain dela urtebetera arte nagusiendako antzerkiak egiten genituen bakarrik..


- Berezia da zuretzat Eibarren ajardutea?

Eibarren aritu izan naiz hainbat alditan eta berezia da, baina baita urduritasuna eta erantzunkizuna. Etxean jarduteak erantzunkizun kutsua dauka. Era berean, zure hurbileko jendearen laguntza daukazu, baina eurei gustatzea da nahi dudana.



Berbalagunak Donostian

Berbetan mintzapraktika egitasmoko hainbat lagun Donostian izan ziren joan den zapatuan. Eguraldi goibelari aurre eginez, Eibartik trenez joan eta gero, katamaranean ibili ziren Donostiako badia inguruan. Alde Zaharrean ere paseatzeko aukera izan zuten Boulevard-ean bazkaldu aurretik. Bapo bazkaldu eta gero, taldeko batzuk erakusketa bat ikusteko aprobetxatu zuten eta beste batzuk, berriz, bueltatxo bat eman zuten Eibarrera itzuli aurretik. Euskaraz berba egin, lagun berriak ezagutu eta ondo pasatzeko aukera izan zuten euskaldunetz eta euskaldun berriz osatutako taldeak.



Itxaropena Untzagara ailegatu zen

Lehenengo saiakera euriarengatik bertan behera laga ostean, barixakuan saio bikoitzean eskaini zuten Itxaropena, Eibarko Bonbardaketaren 75. Urteurrena gogoratzeko programazioaren testuinguruan. Herrikeri herri erakusten diharduten ikus-entzunezkoari laguntzen dantzariak eta Sostoa abesbatzako kideek jardun zuten eta lanak oso harrera ona izan zuten.



"Axeri-boda" Gernikan

Gaur Juan Antonio Urbeltz eta Argia dantzari taldearen Axeri-Boda ikuskizuna eskainiko da Gernikan, Lizeo Antzokian eta beste batzuetan bezala han izango dira Kezka dantza taldeko dantzariak, Argia, Duguna eta Haritz taldeetako dantzariekin batera.

Eibarko Koru Gaztea Kantuan saioan izango da bihar

ORAIN EGUN BATZUK IRENE SACEDA EIBARTARRA ETB1-EKO KANTUAN SAIOAN IKUSTEKO AUKERA izan genuen eta zapatu honetan ere eibartarrak izango dira kantulehiaketan parte hartzen, oraingoan taldeka. Elena Martinek zuzentzen duen Eibarko Koru Gaztea bihar 21.45etatik aurrera emango duten saioan abesten izango da, abesti bi eskaintzen: Xabier Leteren "Habenera" eta Tina Turnerrek abesten zuen "Proud Mary". Bestalde, gaur 22.45etatik aurrera kontzertua eskaintzen egongo dira Elgoibarren C.D. Debarbarre-



Xabier Leteren eta Tina Turner-en abestiak interpretatuko dituzte biharko saioan.

nak antolatutako saioan. Izan ere, Elgoibarko foball-areto taldeak asteburu osorako egita-

raua prestatu du gaur hasi eta domeka bitartean, Maalako plazan.

Ipurterre sariak banatu dira

EGUAZTEN GOIZEAN BANATU ZIZKIETEN SARIAK IPURTERRE IPUIN LEHIAKETAKO IRABAZLEEI, Hezkuntza Esparruko aretoan. ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatutako ipuin lehiaketako irabazleak Joel Sierra (San Andres),



Ariane Garia Garcia (Aldatze), Beñat Laskurain (San Andres), Lorea Legarreta (Aldatze), Alaitz Garate (Iturburu), Gorka Ordoño (Aldatze), Ander Avila (La Salle Azitain), Lucia Irigoien (Aldatze) eta Jone Olabari (Mogel Isasi) izan dira. Irabazleez gain, ekitaldira joandako guztiak pozarren irten ziren ekitalditik, Tor magoak eskainitako ikuskizunarekin primeran pasatu zuten eta.

Gastronomia eta musika Abontzako jaietan

GAUR 18.30-ETAN TXUPINAZO ETA SUZIRIEKIN ABIATUKO DIRA ABONTZAKO ITTURRIKAK ANTOLATUTAKO JAIK. Ohikoari jarraituta, umeentzat pentsatutako ikuskizunarekin ekingo diote egitarauari: 19.00etatik aurrera Patxin eta Potxin pailazoek "Ohitura onak" (euskaraz) eskainiko dizkiete gerturatzen diren ume guztiei. Ondoren, DJ Xaibor, 4. ardo-dastatzeak eta 4. patata-tortila txapelketak osatuko dituzte gaurkoak.

Bihar, berriz, egun osoan izango da zer egin 11.00etatik aurrera: buruhaundiak, umeendako jolasak, txistorra-jana, txikiteoa, ardo-dastatze txapelketa, 400 lagunendako paella, toka eta igel-toka txapelketa, karaokea, txokolate-jana, Gorriti eta bere abereak, Lisker taldea eta erretegi erraldoia antolatu dituzte (ordutegia agendan, 32. orrialdean). Eta domekan, jaietako agur esateko,



Patxin eta Potxin pailazoek emanaldia izango da jaietan.

lora-eskaintza eta Goruntz abesbatzaren parte hartzea izango dituen auzoko hildakoen oroime-nezko meza ospatuko da San Pio X.a elizan.

laburrak

ESTHER GALARZAREN ERAKUSKETA

Ermuko Gaztela-Mantxa Kultur Astearen 36. edizioa gaur abiatuko da, Esther Galarza artista eibartarraren akuarela erakusketa inauguratzearekin batera. Ekainaren 2ra arte Lobianon ikusgai izango den erakusketa gaur 19.30etan zabalduko dute.

BANDA ETA TXISTULARIAK ELKARREKIN

Domekan 12.30etan hasiko da Coliseoan Cielito Musika Bandak eta Usartza Txistulari Taldeak elkarrekin eskainiko duten kontzertua. Carlos Sánchez-Barbak eta Jose Miguel Laskurainek zuzenduko duten emanaldian honakoak eskainiko dituzte: "Antzineko minuetoa" (L. Aranburu), "Erri txikiko jaiak" (Arroitajaregi), "Goizeko izarra" (Gurrutxaga), "Lezea zortzikoa" (K.M Pinedo), "Idiarena" (J.M. Altuna), "Homenaje a Laskurain" (A. Ibarondo), "Txori kantak" (B. Laskurain), "Gora Uzkudun" (F. de Beobide) eta "Txikia" (J.M Gurrutxaga).

AMAÑAKO DANBORRADA

Aurtengo jaietan egingo diren danborradetan parte hartu nahi dutenentzat entseguak aurreko astean hasi ziren Amañako herri ikastetxean. Astero eguenetan izango dira, umeena 19.00etan eta nagusiena, berriz, 20.00etan. Aurtun nagusien danborradak 20 urte beteko ditu.

INGELES UDALEKUAK

Urtero legez, 6-12 urte bitarteko Kutzako Gaztetxoek Elkarteko bazkidentzat "Ezagutu zure hiria ingelesez" eskainiko du Link Idiomak-ek uztailean, 2tik 30era (09.30etatik 13.30etara). Matrikulak 280 euro balio du eta izen-ematea maiatzaren 30era arte egongo da zabalik. Informazio gehiagorako www.kutxasocial.net helbidera jo daiteke edo 902540040 telefono zenbakira deitu.

Kezka dantza taldea Southampton-en

AURREKO ASTEBURUAN SOUTHAMPTON-EN (INGALATERRA) EKITALDI HUNKIGARRIAN PARTE HARTZEKO aukera izan du Kezka dantza taldeak, Basque Children of 37^{UK} elkarteak antolatuta, gerrako umeak Ingalaterrara bidali zituzteneko 75. urteurrenaren ospakizunean. Ekitaldian parte hartu zuten lagunei harre-
ra eginez, txistua, trikitixa eta panderoarekin ongi etorria emanez ekin zioten egunari Kezkako dantzariak eta ekital-

dian bertan dantza saio laburra eskaini zuten. Arratsaldean, berriz, emanaldi nagusia eskaini zuten Southampton-eko Unibertsitateko Lecture aretoan.

Gerrako umeen historiarekin txundituta hasi zen Kezka eta Basque Children-en arteko harremana orain urte batzuk. 70. urteurrenako ekitaldian Kezkako lau dantzari eta Elgoibarko Udalaren Txistulari taldeko bi txistulari Southamptonen izan ziren. Baina Kezkatik adierazi dutenez, "Kezkako dantzari ohi



batek, Nerea Mendikutek, lotu zituen erabat talde biak. Londresen bizi zela, kasualitatez elkartu zen gerrako umeen elkarteko kideekin, eta harreman

handia egin zuen Jose Maria Martinez Coque gerrako umearekin, 70. urteurrenako ekitaldian antolaketan burubelarri sartuz".



Talde bat baino gehiago izan zen urteroko galiziarren jaia girotzen. / LEIRE ITURBE

Asteburu betea Galiziako jaiekin


AS BURGAS GALIZIAKO ETXEA ANTOLATUTAKO XXIX. DIA DAS LETRAS GALEGAS JAIK ederto girotu zuten aurreko asteburu osoa Urkizu aldean. Urteroko martxari jarraituta, Galiziako gastronomia, musika eta dantza izan ziren protagonista nagusiak eta antolatutako ekitaldiek jende mordoak erakarri zuten. Bestalde, jaien egitarauaren barruan hilaren 6an jokatzekoa zen foball txapelketa bertan behera laga behar izan zuten antolatzaileek eta partiduak bihar jokatu dira, Ipuruako anexoan 12.00etatik 14.00etara. Foball-7 modalidadeko lau taldek jardungo dute, denak denek kontra: Eibar K.E, Eibarko Galiziako Etxea, Iruñeako C.D. Teresiano eta C.D. Allariz.

Udako ikastaroetarako matrikulazioa zabalik


EGUAZTENEAN AURKEZTU DITUZTE AURTEN 40 URTE BETETZEN DITUZTEN UEUren Udako ikastaroak eta izena emateko epea zabalik dago. UEUK egoera ekonomiko zailari aurre egin behar dion arren, azken urteetako ikastaro kopuru handiena, 40 ikastarok osatutako eskaintza antolatu du, "bere lanaren beharrezkotasuna azpimarratu eta ahalik eta matrikula gehien lortzeko" asmoarekin. Ikastaroetatik 22 Eibarren (ekainaren 26tik 29ra eta uztailaren 9tik 13ra), Markeskua jauregian emango dira, 8 Baionan (uztailaren 4tik 6ra) eta 10 Iruñean (uztailaren 16tik 18ra). Ikastaro guztiei buruzko informazio guztia www.ueu.org helbidean aurki dezakezue eta matrikula ere bertan bete daiteke.

Untzaga argazki estudioa bilakatu zen zapatuan

KLUB DEPORTIBOKO ARGAZKILARITZA TALDEAK MARTXAN DUEN ARGAZKILARITZA MAIATZEAN programazioari jarraituta, zapatu goizean argazki estudioa egon zen martxan Untzagan: nahi izan zuten guztiek bertan estudio-argazkia atera eta etxera musutruk eramateko aukera izan zuten eta, horrez gain, Untzagako zuhaitzetatik Deporreko argazkilarien lanak zintzilizka ipini zituzten. Asteburu honetan ere jarraipena izango du egitarauak, gaur arratsaldean, 19.00etatik aurrera Jose Benito Ruizek natura argazkilaritzaren inguruan emango duen hitzaldiarekin eta bihar egun osoan eskainiko duen tailerrarekin. Programako azken jarduera hilaren 27an, datorren zapatuan egingo den Argazki Rallya izango da.




Bertsolaritza ikastaro irekia




HANKAMOTXAK BERTSO ESKOLAK ANTOLATUTA, Iparraldean bertso eskolak ematen urteetan jardundakoa den Karlos Aizpuruak bertsolaritza ikastaroa emango du datorren asteko egunean, hilaren 24an, Portalean (3. solairuko ikastaro gelan), 19.00etan hasita. Ikastaroa interesa duen edonorentzat irekia izango da.

laztanak emoten...

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena (bikoteak...) 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.




Zorionak, SUGAR, honezkero gure pototok urtetxua bete dau-eta. Muxu haundi bat famelixaren eta, batez be, Beñaten partez.




Zorionak, KEPA Telleria Sarasketa, gaur urtetxo bat betetzen dozu-eta. Muxu erraldoia famelixa guztiaren partez.




Zorionak, PAULE, gaur bost urte egitten dozuz-eta. Pa potolua gure printzesarentzat famelixa guztiaren partez.




Zorionak, MAIALEN, aurreko domekan hiru urte egin zenduaz-eta. Maite zaittugun guztion partetik zorionak polittori!




Zorionak, MARIA, bixar zortzi urte egingo dozuz-eta. Muxu haundi bat aitaxo eta famelixaren partez.




Zorionak, GORKA, astelehenian zortzi urte beteko dozuz-eta. Famelixa guztiaren partez.




Zorionak, KATTALIN, haraiñegun bost urte egin zenduazelako. Patxo haundi bat aitaxo, amatxo, Xabier eta etxeko guztien partez.




Zorionak, GORKA, hillaren 15ian bost urte egin zenduaz-eta. Muxu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, HODEI, atzo zazpi urte egin zenduaz-eta. Muxu bat etxekuen eta, batez be, Oihanen partez.




Zorionak, TELMA, domekan zure lehelengo urtetxua egingo dozu-eta. Famelixa guztiaren partez.




Zorionak, UDANE, gure sorgin txikixak bi urte egiñak dittu-eta. Famelixa guztiaren partez.



Zorionak, OLATZ, gure sorgiñ haundixak atzo zortzi urte egin zittuan-eta. Famelixa guztiaren partez.



Zorionak, AIORA Goitandia, astelehenian sei urte egingo dozuz-eta. Etxekuen partez.



ENARAK, gure etxeko poxpoliñak, urtetxua egiñ eban hillaren 22xan. Eta ensaiuak egitten dihardu kandela amatatzeko!! Muxu haundi bat etxekuen partez.

HILDAKOAK

- Jose M^a Askasibar Lauzurika. 91 urte. 2012-V-6.
- Adoradina Ferreras Morán. 84 urte. 2012-V-9.
- Jone Bustinza Alberdi. 10 hilabete. 2012-V-10.
- Ane Areta Lizarralde. 82 urte. 2012-V-10.
- Jose Okamika Clementi. 85 urte. 2012-V-10.
- Igor Vila Canales. 27 urte. 2012-V-11.
- Angel M^a Arregi Cano. 51 urte. 2012-V-11.
- M^a Luisa Zubizarreta Ostolaza. 89 urte. 2012-V-11.
- Enrique Bolunburu Garate. 50 urte. 2012-V-13.
- Enrique Elustondo Bergara. 67 urte. 2012-V-13.
- Paula Ugarteburu Iriondo. 97 urte. 2012-V-14.

JAOTAKOAK

- Itsaso Núñez Pérez. 2012-V-5.
- Amina Aiche Tnibar. 2012-V-6.
- Unai Agudo Gutiérrez. 2012-V-9.
- Vega Garzón Blanco. 2012-V-11.
- Ekhi Castrillo Isasi. 2012-V-12.


zinea Coliseoan

(1 ARETOAN)

18an: 22.30
19an: 19.45, 22.30
20an: 17.00, 20.00
21ean: 20.30

"Mi hijo y yo"

Zuzendaria: Philippe Guillard



(2 ARETOAN)

18an: 22.30
19an: 19.45, 22.30
20an: 17.00, 20.00
21ean: 20.30

"Safe"

Zuzendaria: Boaz Yakin



(ANTZOKIAN)

18an: 22.30
20an: 20.00
21ean: 20.30

"Sombras Tenebrosas"

Zuzendaria: Tim Burton



(ANTZOKIAN)

20an: 17.00

"Otra película de huevos..."

Zuzendaria: Gabriel Riva



horoskopoa

ARIES

Behin baino gehiagotan esaten diozu zure buruari bizitza gehiago bizi beharko zenuela. Ba hori egingo duzu hemendik aurrera.

TAURUS

Uda ate-joka daukagu eta oraindik eropa ilunez beteta daukazu armairua. Emaiozu beste kolore bat! Baztertu tristeziak, arren!

GEMINI

Ez begiratu gehiegi etorkizunera eta bizi ezazu unea. Azkenean, planak egiten pasako duzu bizitza bestela. Eta ez zara ohartuko.

CANCER

Umekeria batengatik hasarretu eta egunetan ez duzu pertsona horrekin berba egingo. Gero, hori bai, berriz adiskidetzera oso polita izango da.

LEO

Buruan dituzun kontuak argitzeko ordua heldu da. Hartu zuretzako une baketsua eta ondo pentsatu. Gero, zure erabakiaren berri eman.

VIRGO

Ez hartu zure kargu gauza gehiegi, gero ezingo baitituzu denak burutu. Beharrezko ekintzak egin eta, ahal baduzu, gero geroakoak.

LIBRA

Bizitzak beste aukera bat emango dizu, baina pazientziak itxaron beharko duzu. Askotan, zure nahiak ez dira bapatean betetzen.

SCORPIUS

Zure bizitzatik zerbait kentzekotan, zer izango litzateke? Ondo pentsatu, laster galdera horri erantzun beharko diozu-eta.

SAGITTARIUS

Giro ederrean pasatuko duzu asteburua. Gehien maite duzunekin egongo zara egun hauetan eta une politik pasako dituzue elkarrekin.

CAPRICORNIUS

Dena kontrolpean duzula pentsatuko duzu, baina gauza batek eskuetatik ihes egingo dizu. Ea nola moldatzen zaren arazo txiki hori konpontzeko.

AQUARIUS

Egun bakoitzari bere onena ateratzen jakingo duzu. Umore onarekin ibiliko zara eta gogo horrekin dena izango duzu alde.

PISCIS

Goizean beltza dena, arratsaldean zuria izan daiteke. Gauzak edozein momentutan aldatu daitezke. Beraz, ez kezkatu gehiegi eta egin zurea.

Barixakua 18

MUSEOEN NAZIOARTE EGUNA
16.00/20.00.-

Sarrera doan eta Museoaren Arima, normalean ikusten ez diren museoaren txokoak ezagutzeko aukera. Armagintzaren Museoan (Portalean, 5. pisuan).

INDIANOKUA GAZTELEKUA

16.30.- Fruitu-irabiatuen tailerra. Indianokua Gaztelekuan.

MODA DESFILEA

18.00.- Udaberri-udako nesken bilduma aurkezteko desfilea. El Corte Inglés-ean.

ABONTZAKO JAIK

18.30.- Txupinazoa eta suziariak.
19.00.- "Ohitura onak" Patxin eta Potxin-en ikuskizuna euskaraz.
20.00.- DJ Xaibor.
21.00.- Jai gastronomikoa. 4. Ardo-dastatzea eta 4. Patata-tortila txapelketa. Abontzan.

SANJUANAK PRESTATZEN

19.00.- Sanjuanetarako jarduerak prestatzeko bilera irekia, JaixakHerrixak Herrixandako elkarteak deituta. Montekasino pareko parkean.

ARGAZKILARITZA MAIATZEAN

19.00.- "Konposizioari buruzko hizketak" (hitzaldia), Jose Benito Ruizen eskutik. Portalean.

Zapatua 19

ARGAZKILARITZA MAIATZEAN

10.00.- "Konposizioari buruzko hizketak" (tailerra), Jose Benito Ruizen eskutik. Portalean.

ABONTZAKO JAIK

11.00.- Suziriak. Buruhaundiak.
11.30.- Umeendako jolasak.
12.30.- Txistorra-jana eta txikiteoa.
13.00.- Ardo-dastatze txapelketa.
14.30.- Herri-bazkaria. 400 lagunendako paella.
17.00.- Toka eta igel-toka txapelketa (Ipuruako jubilatuek etxearen parean). Karaokea gazte eta nagusientzat.

17.30.- Txokolate-jana nagusientzat. Ipuruako jubilatuen etxean.

19.00.- Txapelketetako irabazleei saria banatzea.

19.30.- Gorriti eta bere abereak.

21.00.- Berbena, Lisker taldearekin.

21.30.- Erretegi-erraldoia.

22.00.- Berbena, Lisker taldearekin. Abontzan.

GOAZEN PLAZARA

11.00.- Trikitilariak.

11.30.- Umeendako tailerra.

13.00.- Danak Gantxillara.

14.00.- Ekitaldia.

14.30.- Herri bazkaria.

Bazkal ostean kantua eta dantza. Edaria, txistorra eta kamisetak salgai. Eibarko Herrirak antolatuta. Untzaga plazan.

GANTXILLAREN EGUNA

13.00.- "Tantanez Tantan, euskaraz blai". Urkizutik Untzagaraino.

TIRO-TXAPELKETA

14.30.- Armeria Eskola Mendeurrena saria tiro-txapelketa. Arrateko tiro zelaian (izen-ematea bertan).

MODA DESFILEA

18.00.- Udaberri-udako nesken bilduma aurkezteko desfilea. El Corte Inglés-ean.

1948-an JAIOTAKOAK

21.00.- 1948an jaiotakoen afaria. Chalcha jatetxean.

10NBARDAKETAREN 75. URTEURRENA

23.00.- "Gernika, danza sobre lienzo", Aukeran dantza konpainiarekin. Coliseoan.

Domeka 20

ABONTZAKO JAIK

12.00.- Auzoko hildakoen oroimenezko meza, lora-eskaintza eta Goruntz abesbatza. San Pio X.a elizan.

KONTZERTUA

12.30.- Cielito Musika Bandaren kontzertua. Coliseoan.

Astlehena 21

ESKOLARTEKO ANTZERKIA

15.00.- "Lucia la maga" (Manten Niditos Teatro). Hezkuntza Esparruan.

Martitzena 22

IKASTEN

10.00.- "Astronomia", Esteban Estebanen eskutik. Armeria Eskolan.

ESKOLARTEKO ANTZERKIA

15.00.- "Sialuk hartz txikiaren bidaia" (En La Lona Antzerki Taldea, Bizkaia). Hezkuntza Esparruan.

Eguaztena 23

IKASTEN

09.30.- Mendi-ibilaldia, Oiartzundik Arditurrikora. Donostiara joateko autobusaren irteera, Ego Gainetik.

ESKOLARTEKO ANTZERKIA

15.00.- "Neskak, mendia eta beste guztiak", "Lapurketa prestatzen", "Nagusi berria" (Mutrikuko institutua). Hezkuntza Esparruan.

DANBORRADA

19.00.- Danborradarako umeen entsegua.
20.00.- Helduen entsegua. Beistegi eraikinean (B. Sarasketa kalean).

Eguena 24

IKASTEN

10.00.- "Astronomia", Esteban Estebanen eskutik. Armeria Eskolan.

AMAÑAKO DANBORRADA

19.00.- Amañako danborradarako entsegua, umeentzat. Helduen entsegua 20.00etan. Amañako herri ikastetxean.

BERTSOLARITZA

19.00.- Bertsolaritza ikastaroa, Karlos Aizpuruaren eskutik (interesa duen edonorentzat irekia), Hankamotxak bertso eskolak antolatuta. Portalean (3. solairuko ikastaro gelan).

IKASTEN

19.30.- Kaleetan Kantuz-ekoen entsegua. San Andres elizako lokaletan.

BONBARDAKETAREN 75. URTEURRENA

20.30.- "Balada de perdedores", Teatro Interior taldearen eskutik. Sarrerak 5 eurotan salgai. Coliseoan.



erakusketak

- Maiatzaren 27ra arte
JOSE BENITO RUIZen "Diálogos sobre composición" argazki erakusketa. Portalean.
- XAVIER FERRER CHUST**en "Grabarka" argazki erakusketa. Portalean.
- SANTOS MORENO VILLAR**en "Alma de Cuba" argazki erakusketa. Portalean.
- Maiatzaren 31ra arte
31. ARGIZAIOLA LEHIAKETAko lanen erakusketa. Klub Deportiboan.
- DEPORTIBOKO ARGAZKILARITZA TALDEA.** El Ambigú, Portalea taberna eta Untzagako jubilatuenan.
- Ekainaren 3ra arte
JULIAN OCHOAren "Cuba" argazki erakusketa. Arrate Kultur Elkartearen.

lehiaketak

- **Li (buru-hausgarriak).** Apirilaren 17tik aurrera, umeen liburutegian (LH-ko 2. mailatik aurrera koentzat).

farmaziak

- 18, barixakua**
EGUNEZ **Iraundegi** (Sostoatarren, 10)
GAUEZ **Cortina** (Zubiaurre, 29)
- 19, zapatua**
EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
GAUEZ **Ugarte** (Sta. Zezilia, z/g)
- 20, domeka**
EGUNEZ **Las Heras Larramendi** (Calbetón, 19)
GAUEZ **Alberdi** (Zubiaurre, 9)
- 21, astelehena**
EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
GAUEZ **Ibarrondo** (Zeharkalea, 2)
- 22, martitzena**
EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
GAUEZ **Aranburu** (Gipuzkoa etor., 46)
- 23, eguaztena**
EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
GAUEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
- 24, eguena**
EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
GAUEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
- 25, barixakua**
EGUNEZ **Urizar** (J. Etxeberria, 7)
GAUEZ **Urizar** (J. Etxeberria, 7)

telefono jakingarriak

- SOS delai112
- Pegora010
- Udaletxea943 70 84 00
- Portalea943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea943 70 07 99
- Debegesa.....943 82 01 10
- KIUB943 20 38 43
- Epaitegia943 03 34 00
- Iberdrola901 20 20 20
- Naturgas902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.943 46 46 22
- Gurutze Gorria..943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekuia943 03 26 50
- Errepideak902 11 20 88
- Ertzaintza943 53 17 00
- Eusko Tren902 54 32 10
- Pesa902 10 12 10
- Taxiak.....943 20 30 71
-943 20 13 25
- Alkohol.Anon. ..629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen 650 26 59 63

autobus ordutegiak

- EIBAR-DONOSTIA.** Lanegunak: 07.00etatik 9.30etara ordu erdiro eta 09.30etatik 20.30etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.30etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 21.10. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 14.30etara ordu, 15.00, 15.30etatik 18.30etara ordu, 19.30, 20.30 eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.30etatik 20.30etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.
- EIBAR-BILBO.** Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu erdiro. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu erdiro.
- EIBAR-GASTEIZ.** Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.
- GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.30etatik 20.30etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.
- EIBAR-IRUÑEA.** Lanegunak: 07.45 eta 13.30. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.
- EIBAR-ARRATE.** Egunero: 15.30. Zapatuak: 14.15. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Egunero: 16.00. Zapatuak: 14.45. Jaiegunak: 09.30, 10.30, 11.30, 13.30 eta 18.30.
- EIBAR-ELGETA.** Lanegunak: 13.30 eta 20.30. Jaiegunak: 12.00 eta 19.00. **ELGETA-EIBAR.** Lanegunak: 14.00 eta 20.50. Jaiegunak: 12.30 eta 19.30.
- EIBAR-MENDARO.** Lanegunak: 06.20 eta 07.05etatik 22.35etara ordu erdiro. Zapatuak: 07.00etatik 21.00etara ordu. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.45etatik 21.15etara ordu erdiro eta 21.55. Zapatu eta jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara ordu eta 21.55.
- tren ordutegiak**
- EIBAR-DONOSTIA.** Egunero: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.55 eta 21.55. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egunero: 07.47etatik 20.47etara ordu, 9.20 eta 20.20. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.
- EIBAR-BILBO.** Egunero: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.56 eta 21.56. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egunero: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

SUDOKUA

					4		
	4		2			8	
		5		9	1		
	8		5	3	4		2
1							5
2			1	7	8		9
			7	2		1	
	7				5		3
		1					

DENBORAPASAK

4	3	5	7	0	1	8	2	6
1	2	9	8	6	5	7	4	
8	7	0	5	4	1	0	3	
3	5	8	0	7	2	4	0	1
2	7	1	4	0	0	0	3	0
0	9	4	0	1	3	7	0	2
0	1	0	0	2	0	3	4	7
2	8	3	0	4	7	2	1	8
7	4	2	1	0	0	6	0	0

AURREKOAREN EMAITZA

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

– Pisia salgai Eibar erdialdean (Eibarko Txikito). Logela bi, egongela, sukalde eta komuna. Iggogailuarekin. 150.000 euro. Tel. 672-622774.
– Atikoa salgai Eibarko Ardanza kalean. 72 m². Logela bat, egongela, sukalde eta komuna. 17 m²ko terraza. Berria. Hegoaldera begira. Garajea eta trasteroa aukeran. 212.500 euro. Tel. 647-952677.
– Pisia salgai Amañako plazoletan. 2 logela, egongela, sukalde, komuna eta ganbara. Dena kanpora begira. 100.000 euro. Tel. 685-728995.

– Pisia salduko edo aldatuko nuke Bidebarrieta kalean. Handia, kanpora begira eta ganbararekin. Teila eta fatxadak berritze prozesuan. Prezio interesgarria. Tel. 650-896485.

– Pisia salgai Estaziño kalean. 81 m². Logela bi, egongela, sukaldetangela, komun bi eta trasteroa (8 m²). Iggogailua. Guztiz berriztua eta altzariekin. Tel. 660-739563.

1.2. Errentan

– Oporretarako apartamentua alokagai Ezkaray-n. Prest 4 lagunentzat. Iggogailua, garajea eta igerilekua. Tel. 639-176239.

– Pisia alokagai Elgetan. Ia berria. 2 logela, egongela-jangela, sukalde osotua eta bi komun. Tel. 606-083992.

– Apartamentu txikia alokagai Donostian uztailerako. Hondartzaren ondoan. 3-4 lagunentzat. 1.400 euro lau aste. Tel. 675-712886.

– Hiru logelako pisua behar dut Eibarren. Tel. 652-532589.

– Oporretarako pisua alokagai Santonñan. Logela bi. Inguru lasaia, hondartzetatik gertu. Tel. 669-980932.

– Pisia alokagai Ubitxa kalean. 2 logela. Iggogailua eta kalefakzioa. Sartzeko moduan. Tel. 685-732596.

2. Motorra

2.1. Salgai

– Roller 400S karabana salgai. Lonjan gordetakoa eta egoera onean. 4.200 euro. Tel. 679-310083.

– Fiat Ducato autokarabana salgai. 1994. urtekoa. 5-6 plaza. Oso egoera onean. Guztiz ekipatuta. 15.900 euro. Tel. 671-841563.

– Mobilhome salgai Iratzen (Nafarroa). 3 logela, egongela, sukalde, komuna, portxea eta lorategia. Ureztatze automatikoa. Oso prezio onean. Tel. 670-593605.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen eta autoen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak, garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. Autoak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

3. Lokalak

3.1. Salgai

– Lokala salgai Ubitxan. Kaletik sarrera zuzena. Argi instalazioa eta komunarekin. Tel. 617-688311. Maria.

– Lokala salgai Urkizu dorreetan. 85 m². Prezioa adosteko. Deitu 13.00etik 16.00etara eta 20.00etatik 22.00etara. Tel. 943-201727.

– Garajea salgai Asua-Errekan. Sarrera ona. Tel. 670-793312.

3.2. Errentan

– Garaje itxia alokagai Jose Antonio Gisasola kalean. Tel. 943-201140 eta 610-698277.

– Garajea alokagai Abontzan. 2. pisuan, garbitegiarekin. Tel. 617-736527.

– Behaldea alokagai Ubitxan. 100 m². Argi-instalazioa eta komunarekin. Tel. 617-688311. Maria.

– Garajea alokagai. Tel. 617-688311. Maria.

4. Lana

4.1. Lan bila

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 646-176549.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 636-423493.

– Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 675-607031.

– Emakume arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 634-887814.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 646-778839.

– Mutila eskaintzen da edozein lanetarako. Gidatzeko kametarekin. Tel. 632-798768.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 632-910182.

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Esperientzia. Tel. 669-966611.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Tel. 675-007271.

– Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. Tel. 660-723780.

– Neska arduratsua eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. Tel. 672-691958.

– Neska euskalduna eskaintzen da tabernak, elkarteak eta pegorak garbitzeko. Tel. 637-276278.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 699-232823.

– Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 698-632922.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, etxeko lanetarako eta kamarera edo sukaldetaz laguntzaile jarduteko. Tel. 618-444081.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 689-483646.

– Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta pegorak garbitzeko. Tel. 679-912841.

– Emakume arduratsua eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Baita gauz ere. Tel. 633-150376.

– Emakume arduratsua eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Baita gauz ere. Tel. 671-431654.

– Bikotea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta baserriko lanak egiteko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 616-808319.

– Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta baserriko lanak egiteko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 616-808319.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 616-808319.

– Arotza eskaintzen da. Esperientzia. Tel. 654-453268.

– Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko. Tel. 670-251265.
– Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta kamarera jarduteko. Tel. 634-256471.

– Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak edo gaixoak zaintzeko eta etxeko garbiketarako egiteko. Tel. 617-571210.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 695-144954.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Externa eta orduka. Tel. 626-068463.

– Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Externa eta orduka. Tel. 671-329852.

– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Externa eta orduka. Tel. 646-323154.

– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Externa eta orduka. Tel. 670-831279.

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaintzak

– Irakasle tituludunak LH eta DBHko klase partikularak ematen ditu. Esperientzia eta fakturekin. Tel. 636-385156.

– Magisteritzan diplomatutako mutlak LH eta DBHko klase partikularak ematen ditu. Tel. 651-503971.

6. Denetarik

6.1. Salgai

– 2. eskuko Bugaboo-bee ume karroa erosi nuke. Tel. 678-045605.
– Bikiendako bi kapotadun aulkia salgai. Fishwell markakoa. 450 euro. Tel. 669-346335.

– Europa lehortzeko makina salgai. Balay SP 817. 150 euro. Tel. 626-144098.

– Umeak zaintzeko walkie-talkieak (Avent) salgai. Erabili gabe. 30 euro. Tel. 626-144098.

6.3. Galdu/Aurkitu

– Maiatzaren 4ean zilarrezko belarritakoa aurkitu nuen San Andres ikastetxetik gertu. Tel. 943-200345.

– Bataurrekoendako funda aurkitu nuen hilaren 6an Arraten. Tel. 658-729228.

– Musikako euskarazko liburua aurkitu nuen Urkizu inguruan. Tel. 943-121373. Maite.

6.4. Bestelakoak

– Egunero Eibartik Donostiara lanera joateko jende bila nabil. Eibarren 07.00etatik irten eta Donostiatik (ospitaleatik) 15.00etan bueltatzeko. Tel. 656-764762.

Lanerako gertu!

2012
2013



MGEP

MONDROGON GOI ESCOLA POLITEKNIKOA

Ate Irekien Jardunaldiak

Maiatzak 26, 11:00

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

MGEP

- Sistema Elektrotelnoikoak eta Automatizatuak
- Automatizazioa eta Robotika Industriala
- Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio Mekanikoko Produktzioaren Programazioa
- Mekatronika Industriala

www.mondragon.edu/gmhx
gmhx.mgop@mondragon.edu
943 71 21 91



5 eguneko Teorikako ikastaro trinkoak

ZEZEN BIDE




AUTO ESKOLA

ORDUTEGIA:
09.30-13.00
15.30-20.30

GIDA-BAIMENAK

San Andres, 1 ac
Tel. 943 20 34 45
EIBAR





ESLABAN eraikuntzen eraberritze proiektuetan espezializatutako enpresa da.

Soluzio pertsonalizatuak kalitate gorenarekin eta zerbitzu bermerik handienarekin eskaintzen dizugu.

- **Igogailuen instalazioa eta eraberritzea, oztopo arkitektonikoen ezabatzea...**

- **Eraikuntzen eraberritze lanak: fatxada eta estalkien zaharberitzeak.**

- **Eraikinen efizientzia energetikoa hobetzeko eraberritze lanak.**

ESLABANen helburua, bizeraren behar zehatzei irtenbide egokiak ematea da, eta martxan jarritako eraberritze lan guztiak kalitate eta profesionaltasun maila handienarekin aurrera egingo diogunaren bermoa eskaintzea.

C/Alta, 27 era. zaharra, 3^a eskuina - Apdo. 160
20000 Eibar (Gipuzkoa)

Tel.: (+34) 943 820 401 Fax: (+34) 943 820 734
E-mail: info@eslaban.com

www.eslaban.com